# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA-SAILA

**665**

Martxoaren 18ko 70/1985 DEKRETOA, Euskal Herriko Unibertsitatearen Araudia onartuz.

1983.eko Abuztuaren 25eko Unibertsitatearen Eraberrikuntzarako Oinarrizko Legeak hauxe dio bere 12.1 Atalean: Unibertsitateek bere Araudiak gertatuko dituztela eta, aiparuriko Legeak agintzen duenari atxikitzen bazaizkio, dagokion Autonomia-Elkarteko Jaurlaritza-Batzordeak onartuko dituela.

Unibertsitate-Batzarrak gertatutako eta 1985.eko Urtarrilaren 31an onartutako Araudi Orokorra Euskal Herriko Unibertsitateak aurkeztu duenez eta, Jaurlaritza-Batzorde honek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuaren saloz, 1985.eko Martxoaren 18an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau.

ERABAKI DU:

*Lehenengo Atala.*– Dekreto honen Eraskin bakar gisa ematen den Euskal Herriko Unibertsitatearen Araudia onartzen da.

*Bigarren Atala.*– 1.– Onarpen hori, Eusko Jaurlaritzak, Unibertsitatearen Eraberrikuntzari buruzko Abuztuaren 25eko 11/1983 Oinarrizko Legearen aurka sartutako konstituziotasunik ezezko goradeian agertu dituen erizpideen kaltetan gabe ulertuko da.

2.– Eusko Legebiltzarrak, Oinarrizko Lege horren 14.3 Atalean ohartematen denez, geroko basten, onartu dezan Legearen arauera ulertuko da Araudiaren 57garren Atala.

Gasteizen, 1985.eko Martxoak 18.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa-Sailburua,
JOSE CHURRUCA ARELLANO.

### UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN

### ESTATUTUAK

### I TITULUA.
### UNIBERTSITATEAREN IZAERA ETA HELBURUEZ

*1. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Zuzenbide Publikopeko erakundea da, lege mailako nortasun eta ahalmenaz hornitua, bere ondare bereziaren jabe izanez. Bere konpetentzi barrutian, Euskal Herriko Autonomi Elkartean goi mailako Hezkuntzaren zerbitzu publikoa eskaintzen du, horretarako, irakastea, ikaspenak eta ikerkuntza erabiliz, Euskal gizarteari, bere historia eta bere aldaketa sozio-ekonomiko, politiko eta kulturazkoen arauera darizkion premiak asetzen ahaleginduz, bertan kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza zabalduz, euskal kultura eta hizkuntza bultzatzen dituelarik.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**655**

DECRETO 70/1985, de 18 de Marzo, por el que se aprueban los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

El artículo 12.1 de la Ley Orgánica de 25 de Agosto de 1983 de Reforma Universitaria dispone que las Universidades elaborarán sus Estatutos y, si se ajustan a lo establecido en dicha Ley, serán aprobados por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma correspondiente.

Presentados por la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea sus Estatutos generales, elaborados por el Claustro universitario constituyente y aprobados por el mismo con fecha 31 de enero de 1985 este Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y previa deliberación en su reunión del día 18 de marzo de 1985.

HA DISPUESTO:

*Artículo primero.*– Aprobar los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, que se adjuntan como Anexo único al presente Decreto.

*Artículo segundo.*– 1.– La aprobación anterior debe entenderse otorgada sin perjuicio de los postulados mantenidos por el Gobierno Vasco en el recurso de inconstitucionalidad promovido por éste contra la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria.

2.– La interpretación del artículo 57 de los Estatutos queda supeditada a lo que al efecto disponga la Ley que apruebe el Parlamento Vasco, de acuerdo con lo establecido en el artículo 14.3 de la citada Ley Orgánica.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de Marzo de 1985.

El Presidente
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,
Universidades e Investigación.
JUAN CHURRUCA ARELLANO.

### UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### ESTATUTOS

### TITULO I.
### DE LA NATURALEZA Y FINES DE LA UNIVERSIDAD

*Artículo 1.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea es una entidad de Derecho Público dotada de personalidad y capacidad jurídicas y de patrimonio propio. Presta en el ámbito de su competencia el servicio público de la enseñanza superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante la docencia, el estudio y la investigación, procurando satisfacer las necesidades de la sociedad vasca derivadas de su historia y de sus transformaciones socioeconómicas, políticas y culturales, difundiendo en ella los conocimientos de la cultura y la ciencia universal y fomentando la cultura y la lengua vasca.

*2. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Campusez osatua da. Bere izenarekin bat etorriz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Nafarroan kokaturiko ikastegiekiko harremanetan ardura berezia izango du, eta behar diren ahaleginak egingo, halaber, lau euskal herrialdeek unibertsitate-barruti bakarra izan dezaten lortzeko. Bere iharduerak aurrera eramateko, batasunaren oinarria hartzen du gidaritzat, herrialde mailako deserdirapenaz, betekizunei doakienez deskontzentraturik eratua izanez.

*3. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ondoko helburuak ditu:

a) Zientzi, kultur eta arte arloko jakintzak sortu, kritikatu, eman eta zabaltzea, beroriek gizarte-aribidean dituzten ondorioen analisia eginez.

b) Gizarte-ingurugiroaren eskariei erantzunez, goi mailako hezkuntzan profesionariak hezi eta gertatzea. Profesionarien etengabeko hezkuntza ematea, bai eta goi mailako irakaskuntza eska dezaketen gizarteko beste taldeena ere.

c) Kultur hedapen eta zabalkunde-lanak bultzatzea, honela gizartea aurrerago eta gorago eramateko, bizitza politiko, kulturazko eta sozialean partaidetasun hobea ekar dezaketen baldintzak sortzera lagunduz.

d) Gizarte eta ekonomiaren aurrerabideari laguntza ematea, horretarako, alde batetik ikerkuntza, eta bestetik, profesional giroko taldeekiko elkarlana erabiliz.

*4. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bere betekizunak autonomi erregimenaz burutuko ditu, honako Estatutu hauen arauera eta Legearen barruan.

Autonomia horren agerpenak dira, hain zuzen, Estatutuok eta berauen garapen-arauak, unibertsitategobernua, eta irakastearen, ikaspenen eta ikerkuntzaren eraketa, finantza-administrazioen gestioaz batera.

*5. Artikulua*

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bere iharduera eta autonomiaren oinarria akademi askatasunean ezartzen du, ondokoetan bermatua:

a) Katedra-askatasuna, bai irakaskuntz edukinetan eta bai metodologian ere adierazteko eskubidea segurtatzen duena.

b) Ikertzeko askatasuna, ikerkuntzaren metodologi oinarriak eta ikergaiak askatasunez erabakitzea segurtatzen duena.

c) Ikasteko askatasuna, indarrean dagoen legislazioak erabaki ditzakeen baldintzekin, irakasgaiak askatasunez aukeratzea segurtatzen duena.

2. Era berean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bere konpetentzien barrutian, Konstituziotiko eskubideez baliatzea bermatzen du.

3. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak zientziaren kritika-izpiritua du argibide, eta ideologi aniztasunaren errespetua adierazten du garbiro

*Artículo 2.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea está integrada actualmente por los Campus de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. De acuerdo con su nombre, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea prestará especial atención a las relaciones con los centros ubicados en Navarra y hará los esfuerzos necesarios para la consecución de un marco universitario único para las cuatro provincias vascas. Para el desarrollo de sus actividades se fundamenta en el principio de unidad y se organiza de forma territorialmente descentralizada y funcionalmente desconcentrada.

*Artículo 3.*

Son fines de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea:

a) La creación, crítica y transmisión de los conocimientos científicos, artísticos y culturales y el análisis de su repercusión en la práctica social.

b) La formación y preparación, en el nivel superior de la enseñanza, de profesionales en consonancia con las demandas del entorno social. La formación continua de profesionales y de otros colectivos sociales que demanden enseñanza superior.

c) El desarrollo de tareas de difusión y extensión cultural para favorecer la promoción de la sociedad, contribuyendo a la creación de las condiciones que permitan una mejor participación en la vida política, cultural y social.

d) La contribución al desarrollo socioeconómico mediante la investigación y la colaboración con los medios profesionales.

*Artículo 4.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea desarrolla sus funciones en régimen de autonomía, de acuerdo con los presentes Estatutos y en el marco de la Ley.

Constituyen manifestaciones de la autonomía estos Estatutos y sus normas de desarrollo, el gobierno universitario, la organización de la docencia, el estudio y la investigación, y la gestión financiera y administrativa.

*Artículo 5.*

1. La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea fundamenta su actividad y autonomía en la libertad académica, que se concreta en la garantía de:

a) La libertad de cátedra, que asegura el derecho de expresión en los contenidos y metodología docentes.

b) La libertad de investigación, que asegura la libre determinación de los principios metodológicos y de los temas de investigación.

c) La libertad de estudio, que asegura la libre elección de las disciplinas, de acuerdo con las condiciones que determine la legislación vigente.

2. Así mismo, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea garantiza, en el ámbito de sus competencias, el ejercicio de los derechos constitucionales.

3. La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea se inspira en el espíritu crítico de la ciencia y proclama el respeto al pluralismo ideológico.

*6. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernua, Unibertsital Elkartearen sektoreen eta gizarte-interesen partaidetasun eta ordezkotasunaren oinarriekin bat eratzen da. Bai gobernu-organoez eta bai bertako osakide guztien eginbeharren betetzeaz kontrol egokia jarriko da.

*7. Artikulua*

Bere xedeak ongienik betetzeko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bere iharduerak beste Unibertsitateekin bilbatuko ditu, eta kultur eta gizarte mailako ikertegi eta erakundeekin ere harremanak izango.

Era bereziz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Euskal Herriko unibertsitate-irakaskuntzarako gainerako ikastegi publikoekin, eta bestelako kultur erakundeekin ere, lankidetasun-harremanak ezarriko ditu, guztiok, pixkanaka, Euskal Herriaren zerbitzurako batasun handi batetan bilbatuz joan daitezen.

*8. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, era berean, aparteko ardura eskainiko die euskal kulturari eta, beronen barruan, euskarari, zientzi eta teknika-ikuspegietan bereziki, eta, bera irakaskuntz, ikertze, administrazio eta zerbitzu-eginkizunetan pixkanaka sartuz joan dadin, horretarako aribide-oinarriak ezartzen ahaleginduko da, hori guztiori eginetaratzeko behar diren neurriak hartuz eta bitartekoak jarriz.

*9. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea zain egongo da, bere unibertsitate-helburu eta zereginak edonolako erakunde sozial, politiko, ekonomiko, erlijioso edo ideologikoren erabakiez landa eta berorien borondatepetik at geldi daiteen.

*10. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen armarria Jakituriaren Zuhaitzaren alegoriazko irudia da, goialdean "Eman da zabal zazu" lemarekin, behealdean, ezkerrean, "Universidad del País Vasco", eta eskuinaldean "Euskal Herriko Unibertsitatea" idatziak izanik.

II TITULUA.
UNIBERTSITATEAREN EGITURAZ

I KAPITULUA.
XEDAPEN OROKORRAK

*11. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, bere xede berezien arauera, honela egituratzen da:

a) Sail eta Institututan, irakaste eta ikerkuntz helburuetarako.

b) Fakultate, Goi Eskola Tekniko eta Unibertsitate-Eskolatan, ikastegi izenaz adieraziak, irakaskuntza ordenatu eta antolatzeko, akademi koordinaketa eta ekonomi gestioa planifikatu eta beteraziz, unibertsitate-tituluak lortu ahal izateko xedeaz.

*Artículo 6.*

El gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea se organiza de acuerdo con los principios de participación y representación de los sectores de la Comunidad Universitaria y de los intereses sociales. Se establecerá el control adecuado de los órganos del gobierno y del cumplimiento de las obligaciones de todos sus miembros.

*Artículo 7.*

Para el mejor cumplimiento de sus fines, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea articulará sus actividades con otras Universidades y mantendrá relaciones con centros de investigación e instituciones culturales y sociales.

De modo especial, la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea establecerá relaciones de cooperación con los demás centros públicos de enseñanza universitaria e instituciones culturales de Euskal-Herria, de cara a la progresiva articulación de los mismos en una gran unidad al servicio del pueblo vasco.

*Artículo 8.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea prestará particular atención al estudio de la cultura vasca y, dentro de ella, al euskara, especialmente en sus aspectos científicos y técnicos, y propugnará las bases de un proceso de paulatina incorporación a la actividad docente, investigadora, administrativa y de servicios, adoptando las medidas y aportando los medios necesarios que permitan la realización de dicho proceso.

*Artículo 9.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea cuidará de que los fines y las tareas universitarios queden al margen de las determinaciones y de la voluntad de cualquier entidad social, política, económica, religiosa o ideológica.

*Artículo 10.*

El escudo de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea es la representación alegórica del Arbol de la Ciencia con la inscripción en la parte superior del lema "Eman ta zabal zazu" y, en la parte inferior izquierda, "Universidad del País Vasco" y, en la parte inferior derecha, "Euskal Herriko Unibertsitatea".

TITULO II.
DE LA ESTRUCTURA DE LA UNIVERSIDAD

CAPITULO I.
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 11.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea se estructura, según sus diversas finalidades, de la forma siguiente:

a) En Departamentos e Institutos para los fines docentes y de investigación.

b) En Facultades, Escuelas Técnicas Superiores, Escuelas Universitarias, que reciben la denominación de centros docentes, con la finalidad de ordenar y organizar la enseñanza, planificar y realizar la coordinación académica y la gestión administrativa a los efectos de la obtención de títulos universitarios.

c) Zerbitzu Orokorretan eta unibertsitate-izaera onartzen zaien gainerako Guneetan ere bai.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen osagarri izango dira, halaber, Estatutu hauen aplikazioaz sor litezkeen bestelako gune eta ikastegiak ere.

*12. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea I Eranskinean aipatzen diren ikastegiez osatua da. Eranskin horren aldaketak ez lekarkieke Estatutu hauei erreformarik.

II KAPITULUA
SAILEZ

*13. Artikulua*

Sailak, zein bere jakintz arloan, oinarrizko organoak dira, Fakultate, Goi Eskola Tekniko, Unibertsitate-Eskola bat edo batzutan, edo eta, bere kasuan, Unibertsitatean sar edo sort daitezkeen beste ikastegietan, berei dagozkien ikerketak eta irakaskuntza antolatu eta garatzeko ardura dutenak.

Sailak zientzi, teknika edo arte mailako jakintz arlotan eratuko dira, bai Dekretuz ezarririkoen arauera eta bai, Gobernu-Batzarrearen proposamenez, Unibertsitateen Kontseiluak ontzat emandakoen arauez ere.

*14. Artikulua*

1. Sailak sortu, aldatu eta kentzeko akordioa hartzea Gobernu-Batzarreari dagokio.

2. Sailak sortu, aldatu eta kentzeko ekimena, horregatik arazoan ukituak entzun ondoren, Gobernu-Batzarreari, Unibertsitate-Ikastegiei, horretan ukituriko Sailari edo Sailei, eta irakasle-talde bati dagokie.

Eskariarekin batera Memoria bat jarriko da, beronek, gutxienez, ondokook edukiz: bertan ukituriko jakintz arloaren edo arloen izeneztapena, pertsonal irakasle edo ikertzailea, ekonomi eta material-baliabideak, holakorik egotekotan, Sail-atalen erakuntza, ikerkuntz lerroak, ekonomi hornidurarako aurrikuspenak eta barne-aribiderako arautegia.

Gobernu-Batzarreak, horretan ukiturik dauden Sail eta Ikastegiei informe bana eskatuko die, eta Gerentziari beste bat, ekonomi eta administrazio-arazoez.

*15. Artikulua*

Indarrean dagoen legislazioaren barruan, Gobernu-Batzarreak Sail bat eratzeko gutxienez behar den irakasle-kopurua finkatuko du, bai eta jakintz arlo berriak sortu behar izatekotan, beraren izeneztapena ere.

*16. Artikulua*

Sailkideak ondokoak dira:

a) Pertsonal irakasle eta ikertzailea, Saila osatzen duten arloei dagozkien berezitasunetakoak direnean.

b) Beste arloetako pertsonal irakasle eta ikertzailea, diziplinartekotasun edo zientzi berezitasunaren erizpideen arauera, Saila eratzeko elkartuz gero.

c) En Servicios Generales y otras Unidades a las que se reconozca carácter universitario.

Formarán parte de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea otras unidades y centros que puedan crearse en aplicación de estos Estatutos.

*Artículo 12.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea constituída por los centros docentes y de investigación relacionados en el Anexo I. La modificación de este Anexo no supone reforma en los presentes Estatutos.

CAPITULO II.
DE LOS DEPARTAMENTOS

*Artículo 13.*

Los Departamentos son los órganos básicos encargados de organizar y desarrollar la investigación y las enseñanzas propias de sus respectivas áreas de conocimientos en una o varias Facultades, Escuelas Técnicas Superiores, Escuelas Universitarias y, en su caso, en aquellos otros centros que puedan integrarse o crearse.

Los Departamentos se constituirán por áreas de conocimiento científico, técnico o artístico, tanto las establecidas por Decreto como las que sean aprobadas por el Consejo de Universidades, a propuesta de la Junta de Gobierno.

*Artículo 14.*

1. Corresponde a la Junta de Gobierno adoptar el acuerdo de creación, modificación y supresión de los Departamentos.

2. La iniciativa para la creación, modificación o supresión de Departamentos corresponderá a la Junta de Gobierno, oídas las instancias afectadas, o a los distintos centros universitarios, al Departamento o Departamentos afectados y a un grupo de profesores.

La solicitud irá acompañada de una Memoria que contendrá como mínimo: la denominación del área o áreas de conocimiento afectadas, el personal docente o investigador, los medios económicos y materiales, la organización, en su caso, de Secciones Departamentales, las líneas de investigación, las previsiones de dotación económica y el reglamento de funcionamiento interno.

La Junta de Gobierno requerirá un informe de los Departamentos y los Centros afectados y un informe de la Gerencia sobre los aspectos económicos y administrativos.

*Artículo 15.*

En el marco de la legislación vigente, la Junta de Gobierno fijará el número mínimo de profesores para la constitución de un Departamento, así como su denominación, en el supuesto de que se requiera la creación de nuevas áreas de conocimiento.

*Artículo 16.*

Son miembros de un Departamento:

a) El personal docente e investigador cuya especialidad se corresponda con alguna de las áreas que lo integran.

b) El personal docente e investigador que perteneciendo a áreas diferentes se agrupan según criterios de interdisciplinariedad o especialización científica al objeto de su constitución.

c) Denbora zati baterako, Sailari loturiko pertsonal irakasle eta ikertzailea.

d) Bertako bekadunak.

e) Bertako administrazio-Zerbitzuetako pertsonala.

f) Hirugarren zikloko ikasleak, arautegiz lotuak.

g) Lehen eta bigarren zikloko ikasleen ordezkariak.

*17. Artikulua*

Pertsonal irakasle eta ikertzailea, nahitaez, Sailen batetan sartua edo lotua egongo da.

Gobernu-Batzarreak Irakasleek Sailekin izan beharreko lotura arautuko du eta, Sail baten eskariz eta etorburukoak entzunik, zientzi lanak betetzeko, irakasleak denbora zati baterako lotzeko baimena emango.

Lotura horrek akademi urte bi iraungo du, beste bitarako ere luzagarri izanik.

Loturiko irakasleak etorburuko jakintz arlopekoa izaten segituko du.

*18. Artikulua*

Unibertsitate-Sailak, betekizun- eta ekonomi autonomiarik ez duten artean, Sailaren Kontseiluak berak, bere Arautegiaz bat etorriz, proposa dezakeen Ikastegiarekin lotuko dira.

*19. Artikulua*

Geografi edo zientzi eta irakaskuntz berezitasunaren arrazoiak direla eta, Sailak Ataletan zatibanatu ahal izango dira.

Sailaren barne-arautegiak Sailen Atalen osaera eta konpetentziak arautuko ditu, bai eta beraiek sortu, aldatu eta kentzeko ihardupidea ere, horretarako, nolanahi ere den, Gobernu-Batzarrearen onarpena beharrezkoa izanez.

*20. Artikulua*

Sailak ondoko betekizunok ditu:

a) Irakaskuntza antolatu eta programatzea, beraren konpetentziapeko jakintz arloari edo arloei dagozkien ikasketak garatuz.

b) Beraren konpetentziapeko jakintz arloko edo arloetako Doktorego-ikastaldiak antolatu eta garatzea, eta doktorego-tesien prestakuntza koordinatzea ere bai.

c) Beraren konpetentziapeko jakintz arloei dagokien ikerkuntza antolatu eta garatzea.

d) Zientzi, teknika edo arte mailako iharduerei eragin eta bultz egitea, bai eta unibertsitate-hedakuntzazko eta berezitasunerako ikastaroak aurrera eramatea ere.

e) Bere osakideen zientzi eta pedagogi berriztapena laguntzea.

f) Aurrekontua gestionatu, bitarteko materialak administratu, eta irakats-ikerkuntzen plana betetzea erraz dezaketen bitarteko pertsonalak ere zuzentzea.

g) Unibertsitatearen Estatutuek bereziki eslei diezazkieketen gainerako betekizun eta egitekoak, eta halaber lehen artikuluan aipaturikoa bide gisa kunplitzera lihoazkeen bestelako eginkizunak ere.

c) El personal docente e investigador adscrito temporalmente.

d) Los becarios del mismo.

e) Su personal de administración y servicios.

f) Los alumnos de tercer ciclo reglamentariamente adscritos.

g) Los representantes de los alumnos de primer y segundo ciclo.

*Artículo 17.*

El personal docente e investigador estará necesariamente incorporado o adscrito a un Departamento.

La Junta de Gobierno regulará la adscripción de los profesores a los Departamentos y autorizará, a petición de un Departamento y oídos los de origen, la adscripción temporal de profesores para la realización de un trabajo científico.

La adscripción durará dos cursos académicos, prorrogable por otros dos.

El profesor adscrito continuará perteneciendo al Area de conocimiento originaria.

*Artículo 18.*

Los Departamentos Universitarios, en tanto no tengan autonomía funcional y económica, se adscribirán al Centro que proponga el propio Consejo Departamental de acuerdo con su Reglamento.

*Artículo 19.*

Los Departamentos podrán articularse en Secciones por razones geográficas o de especialización científica o docente.

El reglamento interno del Departamento regulará la composición y competencia de las Secciones Departamentales, así como el procedimiento de creación, modificación y supresión de las mismas, para lo cual se requerirá, en todo caso, la aprobación de la Junta de Gobierno.

*Artículo 20.*

Son funciones del Departamento:

a) Organizar y programar la docencia desarrollando las enseñanzas propias del área o áreas de conocimiento de su competencia.

b) Organizar y desarrollar los estudios de Doctorado en el área o áreas de conocimiento de su competencia, así como coordinar la elaboración de tesis doctorales.

c) Organizar y desarrollar la investigación relativa al área o áreas de conocimiento de su competencia.

d) Promover la realización de actividades de carácter científico, técnico o artístico, así como el desarrollo de cursos de especialización y de extensión universitaria.

e) Fomentar la renovación científica y pedagógica de sus miembros.

f) Gestionar el presupuesto, administrar los medios materiales, dirigir los medios personales que posibiliten el cumplimiento del plan docente e investigador.

g) Cualesquiera otras funciones y tareas que específicamente le atribuyen los Estatutos de la Universidad, así como cualquier otra función orientada al adecuado cumplimiento de lo señalado en el artículo primero.

*21. Artikulua*

1. Sailek, urtero, zeinek bere irakaskuntz plana prestatuko dute, eta hiru urterik behin gutxienez, beren ikerkuntz plana eta bera betetzeko aurrekontu-aurrikuspenak ere bai, berauek, Ikastegi ukituak edo ukituek informatuak izan ondoren, Gobernu-Batzarreak onar ditzan.

2. Akademi Ikasturtea amaitzean, Sailek Memoria bana aurkeztu beharko dute, bertan irakasts eta ikerkuntz planak nola bete diren xeheki azalduz, bai eta, leudekeenean, anitzurtetako planaren aldaketak, eta pertsonal irakasle eta ikertzailearen argitarapen eta iharduerak ere jarriz.

III KAPITULUA.
UNIBERTSITATE-INSTITUTUEZ

*22. Artikulua*

1. Unibertsitate-Institutuak, funtsean, zientzi edo teknika-ikerkuntza edo sormen-artegintzan aritzeko bilguneak dira, hezkuntza berezituaz edo doktorego-ikastaroez irakastaldiak egin edo beren konpetentzien barrutiko aholkularitza teknikoa eman ahal izango dutelarik.

2. Unibertsitate-Institutuak honelakoak izan daitezke:

a) Unibertsitatearenak berarenak.

b) Loturikoak, hau da, Unibertsitatearekiko lankidetasun-erak finkatuz, halako komenioa ezarririk duten beste antolakunde pribatu edo publikoen pean direnak.

c) Elkarrartuak, beste antolakunde publiko edo pribatuen lankidetzaz sortuak alegia, horretarako, komenio bat ezarrik, hor erakunde lankide bien peko menekotasuna eta Barne-Erregimenaren Arautegia jarriko direlarik.

d) Unibertsitateartekoak, hots, beste Unibertsitate batzurekiko akordioez eta amankomuneko iharduerak egiteko sortzen direnak.

*23. Artikulua*

1. Institutuak sortzeari buruzko akordioak hartzea edo beraiek ihardunean jartzeko izandako komenio eta akordioen berrespena, Unibertsitatearen Gizarte-Kontseiluaren proposamenaz eta Gobernu-Batzarreareen akordioaren ondoren, Euskal Herriko Autonomi Elkarteari dagokio, aurretik Unibertsitateen Kontseiluaren informea izanez.

2. Institutuak kentzea, horretan ukituriko Institutua entzunda, Unibertsitatearen Gizarte-Kontseiluaren eskariz eta Gobernu-Batzarreareen akordioaz, Euskal Herriko Autonomi Elkarteak erabakiko du, aurretik Unibertsitateen Kontseiluaren informea izanik. Proposamenak berekin Memoria bat izango du, harturiko akordioaren zergatiak azalduko dituena.

*24. Artikulua*

1. Unibertsitatearen beraren Institutu bat sortzeak Unibertsitatearen irakats eta ikerkuntz ihardueren programaketari egokiturik joan beharko du. Oinarriz Unibertsitate-Institutuek ez dute Sail baten jakintz arloa bera izango, ez eta Ikastegi baten iharduerak ere estaliko.

2. Gobernu-Batzarreak, arautegiz, Unibertsitate-Institutuetan sarturiko pertsonal irakasle eta ikertzailearen erregimena ebatziko du.

*Artículo 21.*

1. Cada año, los Departamento elaborarán su plan docente y, cada tres años como mínimo, su plan investigador y las previsiones presupuestarias para su realización, que serán informados por el centro o los centros afectados y aprobados por la Junta de Gobierno.

2. Al finalizar el curso académico los Departamentos presentarán una Memoria donde se especifique el cumplimiento de los planes de investigación y de docencia, así como las modificaciones, en su caso, del plan plurianual, y las publicaciones y actividades del personal docente e investigador.

CAPITULO III.
DE LOS INSTITUTOS UNIVERSITARIOS

*Artículo 22.*

1. Los Institutos Universitarios son centros fundamentalmente dedicados a la investigación científica y técnica o a la creación artística, pudiendo realizar actividades docentes referidas a enseñanza especializada o cursos de doctorado y proporcionar el asesoramiento técnico en el ámbito de su competencia.

2. Los Institutos Universitarios podrán ser:

a) Propios de la Universidad.

b) Adscritos, que son los dependientes de otros organismos privados o públicos que establezcan un convenio con la Universidad en el que se fijan las formas de colaboración.

c) Mixtos, que son los creados en colaboración con otros organismos privados o públicos por medio de un convenio en el que se establezca la doble dependencia de las entidades colaboradoras y el Reglamento del Régimen Interno.

d) Interuniversitarios, que son los creados por acuerdo con otras Universidades y realizan actividades comunes.

*Artículo 23.*

1. La adopción de los acuerdos relativos a la creación de Institutos o de ratificación de los convenios y acuerdos celebrados para su puesta en funcionamiento, es competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta del Consejo Social, tras acuerdo de la Junta de Gobierno y previo informe del Consejo de Universidades.

2. La supresión de Institutos será acordada por la Comunidad Autónoma del País Vasco, a solicitud del Consejo Social, tras acuerdo de la Junta de Gobierno, oído el Instituto afectado y previo informe del Consejo de Universidades. La propuesta irá acompañada de una Memoria justificativa del acuerdo adoptado.

*Artículo 24.*

1. La creación de un Instituto Universitario propio deberá adecuarse a la programación de la actividad docente e investigadora de la Universidad. En principio los Institutos Universitarios no coincidirán con el área de conocimiento de un Departamento o con las actividades de un centro académico.

2. La Junta de Gobierno determinará reglamentariamente el régimen del personal docente e investigador incorporado a los Institutos Universitarios.

*25. Artikulua*

1. Gizarte-Kontseiluak, Sail edo Ikastegi-Batzarre baten eskariz, Autonomi Elkarteari Unibertsitate-Institutuak sortzea proposatuko dio, aurretik Gobernu-Batzarreak aldeko informea emanez.

2. Sortzeko proposamenak Memoria azalgarria izango du lagun, horretan ondokoak zehaztuz:

a) Helburuak, beraren zientzi premia eta gizarte mailako garrantzia.

b) Ikerkuntz programa.

c) Berarekin lorturiko pertsonal irakasle eta urgazlea eta etorkizuneko kideak hautatzeko erak.

d) Dituen material-baliabideak.

e) Ekonomi eta finantz aurrikuspenak.

f) Beraren hezkuntz iharduerak eta ikasketa berezituak, guztiok jakintz arlo batekin edo gehiagorekin duketen zerikusiaz batera.

g) Barne-arautegia, bere erakuntza eta beraren pertsonalaren erregimen juridikoa arautuko dituena.

3. Unibertsitate-Institutuek Gobernu-Batzarreari urtero beren ihardueren Memoria aurkeztuko diote, berorrek ontzat eman dezan.

*26. Artikulua*

1. Unibertsitate-Institutuaren kideak Unibertsitateko Irakasleak dira bai eta, Barne-Arautegiaren bidetik, bertara sarturiko ikertzaileak ere.

2. Lan zehaztuak egiteko, denbora zati baterako, ikertzaile eta lankideak kontratatu ahal izango dira.

*27. Artikulua*

Unibertsitate-Institutu elkarrartuak, loturikoak eta unibertsitateartekoak eratzeko komenioak sinatzeko akordioa Gobernu-Batzarreak hartuko du, lehenago aipaturiko ihardupideaz.

Esandako Institutuen sortzea 23. artikuluan aurrikusiarekin bat egingo da.

*28. Artikulua*

1. Unibertsitatearen Hezkuntz Zientzien Institutua diziplinarteko Unibertsitate-Institutua da, Unibertsitatearen beraren eta hezkuntz sistema osoaren zerbitzutan dagoena.

2. Beraren betekizunak, indarrean dauden arauek aipatzen dituztenak dira eta, nolanahi ere, Hezkuntz arloko ikerkuntza, araketa, gertakuntza eta laguntasuna ematekoak diren guztiak.

3. Beraren aribidea Estatutu hauen bidez arteztuko da, bai eta Gobernu-Batzarreak onarturiko arautegiaz ere.

IV KAPITULUA.
IKASTEGIEZ

*29. Artikulua*

Fakultateak, Goi Eskola Teknikoak eta Unibertsitate-Eskolak, izan, Ikastegiak dira, akademi tituluak lortzera daramaten unibertsitate-ikasketen antolaketa eta administrazio-gestioaren ardura dutenak.

*Artículo 25.*

1. El Consejo Social propondrá a la Comunidad Autónoma la creación de Institutos Universitarios a instancia de un Departamento o Junta de Centro previo informe favorable de la Junta de Gobierno.

2. La propuesta de creación irá acompañada de una Memoria explicativa, donde se especifiquen:

a) Las finalidades, su necesidad científica y relevancia social.

b) El programa de investigación.

c) El personal investigador y auxiliar adscrito y las formas de selección de los futuros miembros.

d) Los medios materiales disponibles.

e) Las previsiones económicas y financieras.

f) La actividad docente y las enseñanzas especializadas y su relación con un área o áreas de conocimiento.

g) El reglamento interno, que regulará su organización y el régimen jurídico de su personal.

3. Los Institutos Universitarios presentarán anualmente a la Junta de Gobierno para su aprobación una Memoria de sus actividades.

*Artículo 26.*

1. Son miembros del Instituto Universitario los profesores de la Universidad y los investigadores incorporados al mismo de acuerdo con el Reglamento interno.

2. Para la realización de trabajos concretos se podrá contratar temporalmente investigadores y personal laboral.

*Artículo 27.*

La Junta de Gobierno adoptará el acuerdo de suscribir los convenios para la constitución de Institutos Universitarios mixtos, adscritos e interuniversitarios, según el procedimiento señalado anteriormente.

La creación de dichos Institutos se adecuará a lo previsto en el artículo 23.

*Artículo 28.*

1. El Instituto de Ciencias de la Educación de la Universidad es un instituto universitario interdisciplinar al servicio de la propia Universidad y de todo el sistema educativo.

2. Sus funciones son las que se señalan en la normativa vigente y, en toda caso, las de investigación, prospección, formación y asistencia en el campo de la educación.

3. Su funcionamiento se regirá por los presentes Estatutos, así como por el reglamento interno aprobado por la Junta de Gobierno.

CAPITULO IV.
DE LOS CENTROS DOCENTES

*Artículo 29.*

Las Facultades, Escuelas Técnicas Superiores y Escuelas Universitarias son centros docentes encargados de la gestión administrativa y la organización de las enseñanzas universitarias conducentes a la obtención de títulos académicos.

*30. Artikulua*

Unibertsitate-Ikastegiak sortu edo kentzea Autonomi Elkarteari dagokio, aurretik Unibertsitateen Kontseiluaren informea izanik. Proposamenak, Unibertsitatearen edo Gizartearengandik jalgiak, ikastegia sortu edo kentzeko zergatiak azalduko dituen Memorian behar bezala justifikaturik, Gobernu-Batzarreak eta Gizarte-Kontseiluak ontzat eman beharko dituzte.

*31. Artikulua*

Fakultateek, Goi Eskola Teknikoek eta Unibertsitate-Eskolek ondoko betekizunak dituzte:

a) Ikasketa-planen arauera, akademi tituluak lortzera daraman irakaskuntza antolatzea, bai eta Ikastegiaren bestelako diploma berezietarakoa ere.

b) Ikasketa-planen proposamena egitea, beroriek ontzat eman edo alda daitezen.

c) Hezkuntza berezitua antolatu eta, horretarako, loturiko Ikastegi eta Unibertsitate-Institutuen irakaskuntz iharduerak koordinatzea.

d) Aurrekontua gestionatu, bitarteko materialak administratu, eta, irakaskuntz ariketarako beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak zuzentzea.

e) Estatutuotan aurrikusten diren bestelako betekizunak ere bai.

Fakultateek eta Goi Eskola Teknikoek, gainera, berezko betekizun izango dute bigarren eta hirugarren zikloko ikasketen antolakuntza.

*32. Artikulua*

Ikastegi-Batzarreak eratu eta Gobernu-Batzarreak onarturiko Arautegiak, Ikastegien aribidea arteztuko du, Estatutu hauei egokitua izanez gero.

*33. Artikulua*

Akademi titulazioan ageri den ikaskuntza berezia ematen dutenean, Ikastegi-Atalak sortu ahal izango dira.

*34. Artikulua*

Gobernu-Batzarreak, ikastegiek, eta, bere kasuan, Sailek ere, horrela proposa dezatenean, komenioz eta ikasketen izaera nolakoa den kontutan harturik, irakaskuntza, zatiz, beste erakundeetan azaltzeko baimena eman dezake.

*35. Artikulua*

Kide diren Fakultate edo Goi Eskola Teknikoek eta Unibertsitate-Eskolek, bai irakaskuntzan eta bai ikerkuntzan ere, beren iharduerak koordinatuko dituzte irakaskuntz eta ikerkuntz programen bitartez, honela elkarren arteko lankidetasuna errazteko.

*36. Artikulua*

Unibertsitate-Ikastetxeak lehen zikloko Unibertsitate-irakaskuntzaren eraketa eta administrazio-gestioaren ardura duten ikastegiak dira, bera, dagozkion Fakultate eta Goi Eskola Teknikoen ikasketa-planen arauera eta beroriekin koordinaturik eramanez.

*Artículo 30.*

Es competencia de la Comunidad Autónoma la creación o supresión de Centros Universitarios, previo informe del Consejo de Universidades. Las propuestas, emanadas de la propia Universidad o de la Sociedad, debidamente justificadas en una Memoria en la que se detallan las necesidades de creación o los motivos de desaparición del Centro, deberán ser aprobadas por la Junta de Gobierno y el Consejo Social.

*Artículo 31.*

Son funciones de las Facultades, Escuelas Técnicas Superiores y Escuelas Universitarias:

a) Organizar la docencia conducente a la obtención de un título académico, de acuerdo con los planes de estudio, y de otros títulos o diplomas específicos del Centro.

b) Proponer los Planes de Estudio para su aprobación o modificación.

c) Organizar la enseñanza especializada y coordinar a estos efectos la actividad docente de los Centros adscritos y de los Institutos Universitarios.

d) Gestionar el presupuesto, administrar los medios materiales, dirigir los medios personales necesarios para el ejercicio de la docencia.

e) Otras funciones previstas en los presentes Estatutos.

Las Facultades y Escuelas Técnicas Superiores tendrán, además, como funciones específicas la organización de las enseñanzas del segundo y tercer ciclo.

*Artículo 32.*

Los Centros Docentes se regirán por un Reglamento elaborado por la Junta de Centro y aprobado por la Junta de Gobierno, si se adecúa a los presentes Estatutos.

*Artículo 33.*

Se podrán crear Secciones de Centro cuando impartan enseñanza diferenciada que se refleje en la titulación académica.

*Artículo 34.*

La Junta de Gobierno, a propuesta de los Centros Docentes y, en su caso, de los Departamentos, podrá autorizar, mediante convenio y por razones de la naturaleza de la docencia, que la enseñanza sea impartida parcialmente en otras instituciones.

*Artículo 35.*

Las Facultades o Escuelas Técnicas Superiores y las Escuelas Universitarias afines coordinarán sus actividades tanto docentes como investigadoras, por medio de programas docentes y de investigación que permitan su colaboración.

*Artículo 36.*

Los Colegios Universitarios son centros docentes encargados de la gestión administrativa y de la organización de la enseñanza universitaria de primer ciclo, que se realizará de acuerdo con los planes de estudio de las Facultades y Escuelas Técnicas Superiores correspondientes, y en coordinación con éstas.

*37. Artikulua*

Unibertsitate-Ikastetxeetako irakaskuntzak, beren pertsonal irakaslea sarturik dagoen Unibertsitate-Sailen jarraibideei segituko die, Estatutu hauetan ezarririk dagoen erregimenaren aplikazioari horregatik kalte egiteke.

*38. Artikulua*

Loturiko Ikastetxeak sortu, aldatu edo kentzeko proposamena Gizarte-Kontseiluak akordioz egingo du, aurretik Gobernu-Batzarrea entzunik.

*39. Artikulua*

Edozein erakunde publikok edo pribatuk bultza dezake Unibertsitate-Eskola edo Ikastetxeak sortzea. Berauek onartu eta Unibertsitateari lotzeko, ordea, beharrezkoa izango da Gobernu-Batzarrearen eta Gizarte-Kontseiluaren onespena eta dagokien komenioa sinatzea, horretan ukituriko Campuseko Batzarrea aurretik entzunda.

Loturiko Unibertsitate-Eskola eta Ikastetxeak, legearautegiaz, Estatutu hauez eta indarrean dauden komenioez zuzenduko dira.

Gobernu-Batzarreak Unibertsitatearen eta berari loturiko unibertsitate-Eskola eta Ikastetxeen arteko komenio arautzailea onartuko du. Bertan ondokoak jarriko dira: iraupena, elkarrenganako eskubide eta eginbeharrak, emateko diren ikasketak, ikasleen kopurua, *uenia docendi*-aren emateko erregimena, eta Unibertsitatearen Sail eta ikastegiekiko lankidetza eta koordinaketa egiteko erak.

Gobernu-Batzarreari dagokio, hori eskatzen duten Unibertsitate-Eskola eta Ikastetxeen lotura-formulak erabakitzea.

*40. Artikulua*

Unibertsitateak berari loturiko Unibertsitate-Eskola eta ikastetxeen aribidea begiratuko du, eta beren ihardueren argibideak eskatuko.

*41. Artikulua*

Loturiko Unibertsitate—Eskola eta ikastetxeak sartzeko formulak erabakitzea Gizarte-Kontseiluari dagokio, aurretik Gobernu-Batzarrea entzunik.

## III TITULUA.
## UNIBERTSITATEAREN GOBERNUAZ

### I KAPITULUA.
### OROREKIKO XEDAPENAK

*42. Artikulua*

Unibertsitatearen gobernu eta administrazioa, erabakitzeko eta beterazteko organo bildu eta pertsonanabakarrekoen bidez bilbatzen dira, organo horiek bai Unibertsitate osorako orokorrak, eta bai bera osatzen duten gune organiko bakoitzaren banako eta bereziak izan daitezkeelarik.

*43. Artikulua*

Unibertsitatearen gobernu-erregimenak ondoko oinarriak ditu eustazpian:

a) Unibertsital Elkartearen eta, bere kasuan, Gizartearen sektore guztiek organo bilduetan beren ordezkaritza izatea.

*Artículo 37.*

La docencia en los Colegios Universitarios seguirá las directrices de los Departamentos Universitarios en cuyo seno se halle integrado su personal docente, sin perjuicio de la aplicación del régimen establecido en los presentes Estatutos.

*Artículo 38.*

La propuesta de creación, modificación o supresión de los Colegios integrados será acordada por el Consejo Social, oída la Junta de Gobierno.

*Artículo 39.*

Cualquier entidad pública o privada podrá promover la creación de Escuelas y Colegios Universitarios. Su reconocimiento y adscripción requerirá la aprobación, oída la Junta del Campus afectado, de la Junta de Gobierno y del Consejo Social, y la firma del correspondiente convenio.

Las Escuelas y Colegios Universitarios adscritos se regirán por la normativa legal, los presentes Estatutos y los convenios vigentes.

La Junta de Gobierno aprobará el convenio regulador de las relaciones entre las Escuelas o Colegios Universitarios adscritos y la Universidad. En él se fijarán la duración, derechos y obligaciones mutuas, enseñanzas que se impartan, número de alumnos, régimen de concesión de la *uenia docendi* y las formas de coordinación y colaboración con los Departamentos y Centros de la Universidad.

Corresponde a la Junta de Gobierno determinar las fórmulas de adscripción de las Escuelas y Colegios Universitarios que lo soliciten.

*Artículo 40.*

La Universidad inspeccionará el funcionamiento de las Escuelas y Colegios Universitarios adscritos y recabará de los mismos la información de sus actividades.

*Artículo 41.*

Corresponde al Consejo Social, oída la Junta de Gobierno, determinar las fórmulas de integración de las Escuelas y Colegios Universitarios adscritos.

## TITULO III.
## DEL GOBIERNO DE LA UNIVERSIDAD

### CAPITULO I.
### DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 42.*

El gobierno y la administración de la Universidad se articula por medio de órganos de decisión y ejecución, colegiados y unipersonales, tanto generales de la Universidad como particulares de cada una de las unidades orgánicas en ella integradas.

*Artículo 43.*

El régimen de gobierno de la Universidad se fundamenta en los principios siguientes:

a) La representación en los órganos colegiados de todos los sectores de la Comunidad Universitaria y, en su caso, de la Sociedad.

b) Organo orokorrek guneetakoen gaineko nagusigoa izatea, bai eta bilduek pertsonabakarrekoen gainetikoa ere, horregatik Legean eta Estatutuotan ezarritako konpetentzi mugaketaganako errespetuari kalterik egiteke.

*44. Artikulua*

1. Gobernu-organo bilduak ondokoak dira:

Gizarte-Kontseilua
Unibertsitatearen Klaustroa
Gobernu-Batzarrea
Campusetako Batzarreak
Fakultate- edo Eskola-Batzarreak
Sail-Kontseiluak
Unibertsitate-Institutuen Kontseiluak

2. Pertsonabakarreko organoak ondokoak dira:

Erréktorea
Erréktorordeak
Idazkari Orokorra
Gerentea
Gerentordeak
Fakultateen Dekanoak eta G.E.T.en Zuzendariak
Fakultateen Dekanordeak eta G.E.T.en Zuzendariordeak
Unibertsitate-Eskolen eta Ikastetxeen Zuzendariak
Unibertsitate-Eskolen eta Ikastetxeen Zuzendariordeak
Ikastegien Idazkariak
Sailen Zuzendariak
Unibertsitate-Institutuen Zuzendariak
Irakasteko ez diren Xedebakarreko Guneen Zuzendariak

*45. Artikulua*

Pertsonabakarreko gobernu-organoen karguak betetzeko, denbora osorako arduraldia behar da, horregatik Legean aipatzen diren salbuespenei kalterik egiteke. Pertsona berberak ezingo du inola ere bete kargu bat baino gehiago.

*46. Artikulua*

Erréktorearen erabakiek, Klaustro Orokorraren, Gobernu-Batzarrearen eta Gizarte-Kontzeiluaren akordioek administrazio-bidea agortzen dute, eta horien guztion aurka egiteko, zuzenki jurisdikzio kontentzioso-administratibora jo beharko da.

Pertsonabakarreko beste organoen erabakiak eta gainerako organo bilduen akordioen aurka, aldiz, altxada-bidez Erréktorearengana jo daiteke, berrikusteko, Estatutuotan xedaturikoari, horregatik, kalterik egiteke.

II KAPITULUA.
GOBERNU-ORGANO BILDUETARAKO ORDEZKARIEN HAUTAKETAZ

*47. Artikulua*

Unibertsital Elkartearen sektore ezberdinen ordezkarien hautaketa, bai Klaustro Orokorrerako eta bai Sail eta Unibertsitate-Institutuen Kontseiluetarako, Fakultate, Goi Eskola Tekniko, Unibertsitate-Eskola eta Ikastetxeen Batzarreetarako ere, sufragio unibertsal, eskujabe, berdin, zuzen eta sekretuaz egingo da.

Sektore bakoitzaren ordezkariak bertakoek bertako kideen artean hautatuko dituzte.

Hautesle eta hautagarriak hauteskunde-zentsuan izena emanda jarririkoak dira. Hauteskunde-deialdiak aipaturiko zentsuaren itxiera-data zehaztuko du.

b) La supremacía de los órganos generales sobre los de las unidades, y la de los colegiados sobre los unipersonales, sin perjuicio del respeto a la delimitación de competencias establecidas en la Ley y en los presentes Estatutos.

*Artículo 44.*

1. Son órganos de gobierno colegiados:

El Consejo Social
El Claustro Universitario
La Junta de Gobierno
Las Juntas de Campus
Las Juntas de Facultad o Escuela
Los Consejos de Departamento
Los Consejos de Institutos Universitarios

2. Son órganos unipersonales:

El Rector
2. Ikastegi-Batzarreak bere betekizunak Batzorde Iraunkor bati ordezka diezazkioke, beronen osaera Ikastegiaren Arautegian finkatuz, bertan, nolanahi ere den, Ikastegi-Batzarreko sektorekako ordezkatze-prozentu berberak mantenduz. Halere, ezingo zaizkio beroni inola ere ordezkatu aurreko zatiaren a), b), f) eta g) lerroaldeetan ezarritako betekizunak.

*III ATALA. Ikastegien Dekano edo Zuzendariez, Dekanorde edo Zuzendariordeez eta bertako Idazkariez.*

87. Artikulua

1. Dekanoak edo Zuzendariak Fakultate edo Eskolen Zuzendaritza eta ordezkatze- organoak dira.

2. Dekano edo Zuzendaria Ikastegi-Batzarreak, bertako katedradun edo irakasle titularren artetik, aukeratuko du eta Errektoreak izendatuko.

3. Hautesteko ihardupidea Ikastegiaren Arautegiak ezarriko du. Agintaldiaren iraupena hiru urtetakoa izango du eta inola ere ezingo da elkarren segidan behin baino gehiagotan berrautatua izan.

Dekano edo Zuzendariek, 73. artikuluan bilduriko arrazoiak gertatuz gero, beren kargua utzi beharko dute.

*88. Artikulua*

Dekano-Zuzendariei ondoko betekizunak dagozkie:

a) Ikastegiaren ordezkaritza eta bertara loturiko pertsonal osoaren burutza funtzionala izatea.

b) Fakultate edo Eskolaren iharduera guztiak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea.

c) Unibertsitate-Klaustroaren, Gobernu-Batzarrearen, Fakultate edo Eskola-Batzarrearen eta gobernurako gainerako organo orokorren jarraibideak aplikarazi eta beren erabakiak beteraztea.

d) Errektoreari karguen eta loturiko pertsonalaren izendapenak proposatzea.

*Artículo 86.*

1. Las decisiones de la Junta de Centro será vinculantes para los demás órganos y miembros del Centro. Corresponde a la Junta de Centro adoptar todas las decisiones fundamentales que afecten a la vida académica del Centro y, en particular las siguientes:

a) Elaborar y proponer a la Junta de Gobierno, para su aprobación, el Reglamento del Centro.

b) Elegir al Decano o Director del Centro.

c) Elevar a la Junta de Gobierno la propuesta de plantillas del profesorado y del PAS del Centro.

d) Proponer y gestionar el presupuesto anual.

e) Informar las propuestas de selección y contratación del profesorado.

f) Elaborar y proponer el plan de estudios del Centro.

g) Proponer la creación y modificación de Departamentos e Institutos.

h) Informar la Memoria anual que sobre docencia e investigación presenten los distintos Departamentos e Institutos Universitarios adscritos al Centro.

i) Designar cuantas Comisiones juzgue oportunas para el ejercicio de sus funciones.

2. La Junta de Centro podrá delegar sus funciones en una Comisión Permanente cuya composición vendrá fijada en el Reglamento del Centro, debiéndose, en cualquier caso, mantener los mismos porcentajes de representación por sectores que en la Junta del Centro. En ningún caso serán funciones delegables las establecidas en los párrafos a), b), f) y g) del apartado uno.

*SECCION III. De los Decanos o Directores, de los Vicedecanos o Subdirectores y de los Secretarios de Centro.*

*Artículo 87.*

1. Los Decanos o Directores son órganos de dirección y representación de las Facultades o Escuelas.

2. Los Decanos o Directores son elegidos por la Junta del Centro de entre los Catedráticos o Profesores Titulares del mismo y nombrados por el Rector.

3. El Reglamento del Centro establecerá el procedimiento de elección.

La duración del mandato será de tres años y en ningún caso será posible más de una reelección consecutiva.

4. Los Decanos o Directores cesan por las causas recogidas en el artículo 73.

*Artículo 88.*

Corresponden a los Decanos o Directores las funciones siguientes:

a) Ostentar la representación del Centro y la jefatura funcional de todo el personal adscrito al mismo.

b) Dirigir, coordinar y supervisar todas las actividades de la Facultad o Escuela.

c) Aplicar las directrices y ejecutar los acuerdos del Claustro Universitario, de la Junta de Gobierno, de la Junta de Facultad o Escuela y de los demás órganos generales de gobierno.

d) Proponer al Rector los nombramientos de cargos y personal adscrito.

e) Hala behar izanez gero, akademi diziplinazko arauak kontutan izanik, bidezko diren zehapenak proposatu eta aplikatzea.

f) Ikastegiaren organo bilduen mahaiburu izatea.

g) Urteroko Memoria prestatu eta bera Ikastegi-Batzarreari aurkeztea, geroago beronek Gobernu-Batzarreari eraman diezaion.

h) Errektoreak ordezka diezazkiokeen betekizun guztiak, edo Unibertsitateari buruzko legislazioak, Estatutuok edo berauen garapen-arauek esleituak eta, Eskoia edo Fakultateari doazkion eta espreski beste organoei esleitu ez zaizkien gainerako guztiak.

*89. Artikulua*

Dekano-Zuzendariek beren irakaskuntz eginbeharrak, gehien dela, beren arduraldiaren bi herenetan murriztu ahal izango dituzte, hori Errektoreari eta dagokion Sailari jakin eraziz.

*90. Artikulua*

1. Errektoreak, Dekano edo Zuzendariaren proposamenaz, Dekanordeak edo Zuzendariordeak izendatuko ditu, Ikastegian eskaturiko baldintzak betetzen dituzten irakasleen artetik.

2. Dekanorde edo Zuzendariordeek Dekano edo Zuzendariek berengan ordezka ditzaketen betekizunak dituzkete, beren izendapenean aipatzen zaizkien zerbitzuen zuzendaritza beren gain hartuz.

3. Beren kargua ondokoengatik utziko dute, dimisioz, heriotzez, ezintasunagatik ezaz, Errektorearen erabakiz, eta Dekano edo Zuzendariaren proposamenaz.

4. Kanpoan edo eri egonez gero, Dekano edo Zuzendariaren lekua bere izendapenean horrexetarako aukeratua den Dekanorde edo Zuzendariordeak hartuko du. Kanporaldi edo eritasuna sei hilabetekoa baino luzeagoa balitz, Ikastegi-Batzarreak hauteskunde-deialdi berria egin beharko luke.

*91. Artikulua*

1. Ikastegiaren Idazkaria Errektoreak izendatuko du, Dekano edo Zuzendariaren proposamenaz. Izendapena halakotzat diharduen irakasle baten gain eroriko da.

2. Idazkaria, ikastegiaren gobernu-, ordezkatze- eta administrazio-organo bilduen egintza eta akordioen fede-emailea da, akta-liburuen eraketa eta zaingoaren ardura du eta akordioez eta Ikastegiko dokumentazio ofizialean idatzirik dautzan gertakari edo egintza guztiez, behar diren ziurtagiriak luzatzen ditu.

*92. Artikulua*

Dekano edo Zuzendariek Ikastegien Dekanorde, Zuzendariorde eta Idazkariak beren irakaskuntz eginbeharretatik, gehien dela, beren arduraldiaren erdiraino, salbuets ditzakete, hori Errektoreari eta dagokion Sailari jakin eraziz.

V KAPITULUA
SAILEN, UNIBERTSITATE-INSTITUTUEN ETA IRAKASTEKO EZ DIREN XEDEBAKARREKO GUNEEN GOBERNU-ORGANOEZ

*I ATALA. Sailen Gobernu-Organoez.*

*93. Artikulua*

1. Sailaren Gobernua Kontseiluari eta Zuzendariari dagokie.

e) Proponer y aplicar, en su caso, las sanciones que procedan según las normas sobre disciplina académica.

f) Presidir los órganos colegiados del Centro.

g) Elaborar y presentar a la Junta de Centro la Memoria anual para su posterior traslado a la Junta de Gobierno.

h) Cuantas funciones le delegue el Rector, o le sean atribuídas por la legislación universitaria, los Estatutos o sus normas de desarrollo, y aquellas referidas a la Escuela o Facultad que no hayan sido atribuídas expresamente a otros órganos.

*Artículo 89.*

Los Decanos o Directores podrán reducir sus obligaciones docentes hasta un máximo de dos tercios de su dedicación, comunicándolo al Rector y al Departamento correspondiente.

*Artículo 90.*

1. El Rector, a propuesta del Decano o Director, nombrará a los Vicedecanos o Subdirectores, de entre los profesores del Centro que reúnan los requisitos exigidos.

2. Los Vicedecanos o Subdirectores ejercerán las funciones que en ellos delegue el Decano o Director, asumiendo la dirección de los servicios mencionados en su nombramiento.

3. Cesarán por dimisión, fallecimiento, incapacidad, por resolución del Rector, a propuesta del Decano o Director.

4. En caso de ausencia o enfermedad, sustituirá al Decano o Director, el Vicedecano o Subdirector designado expresamente en el nombramiento. Si la enfermedad o ausencia se prolongare por más de seis meses, la Junta de Centro convocará nuevas elecciones.

*Artículo 91.*

1. El Secretario del Centro será nombrado por el Rector, a propuesta del Decano o Director. El nombramiento recaerá en un profesor en activo.

2. El Secretario es el fedatario de los actos y acuerdos de los órganos colegiados de gobierno, representación y administración del Centro, cuida de la formación y custodia de los libros de actas y libra las certificaciones oportunas de los acuerdos y de cuantos actos o hechos consten en la documentación oficial del Centro.

*Artículo 92.*

Los Vicedecanos, Subdirectores y Secretarios de Centro podrán ser eximidos por el Decano o Director de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación, comunicándolo al Rectorado y al Departamento correspondiente.

CAPITULO V.
DE LOS ORGANOS DE GOBIERNO DE LOS DEPARTAMENTOS, DE LOS INSTITUTOS UNIVERSITARIOS Y DE LAS ENTIDADES FUNCIONALES NO DOCENTES

*SECCION I. De los Organos de Gobierno de los Departamentos.*

*Artículo 93.*

1. El Gobierno del Departamento corresponde al Consejo y al Director.

2. Sailaren Kontseiluaren osakideak ondokoak izango dira: Zuzendaria, Idazkaria, Sail-Atalen Koordinatzaileak, irakasleen sei ordezkari, laguntzaileen ordezkari bat, hirugarren zikloko ikasleen ordezkari bat, lehen eta bigarren zikloko ikasleen ordezkariak eta AZParen ordezkari bat.

3. Kontseiluak hurrengo betekizunok ditu:

a) Sailaren Irakaskuntza, ikerketa eta administraziozereginak programatzea.

b) Gastu-proposamenak eta kontuen egoera ontzat ematea.

c) Unibertsitatearen Estatuekin eta Ikastegiaren Arautegiaz bat etorriz, bertan loturiko pertsonalaren kontratazio eta bultzapenaz informatu eta erabakitzea.

d) Sailaren urteroko Memoria ontzat ematea.

e) Zientzi, teknika edo arte-lanak burutzeko, kontratuak egiteko baimena ematea.

f) Beraren zuzendaria hautatzea.

g) Aldez aurretik, *uenia docendi*-a emateko, informatzea.

h) Estatutok edo berauen garapen-arauek eslei diezazkioketenak.

*94. Artikulua*

1. Zuzendaria, Sailaren Kontseiluak hautatuko du eta Errektoreak izendatuko.

2. Kandidaturaren aurkezpena Kontseilukideen ehuneko hogeiaren bermetasunaz joango da. hautagai katedraduna, emandako botu baliodunen gehiengo soila lortuz gero, kargurako haintzat hartua izango da.

3. Esandako gehiengo hori ezein hautagai katedradunek erdietsiko ez balu, irakasle titular bat hautatu ahal izango da Zuzendari, aurreko ihardupidearen arauera.

4. Sailak Zuzendaririk ez balu, Kontseiluak, bere barne-Arautegiaz bat etorriz, bere aribiderako egoki deritzen neurriak erabakiko lituzke.

5. Arautegiak Zuzendariaren agintaldiaren iraupena eta kargua uzterazteko ihardupidea ezarriko ditu.

*95. Artikulua*

Sailaren Zuzendariari ondoko betekizunok dagozkio:

a) Sailaren ordezkaritza Unibertsitatearen gainerako organoen aurrean izatea.

b) Sailaren Kontseiluaren bileretarako eguneko aztergaiak prestatu, deia egin eta bertako mahaiburu izatea, Sailaren Arautegiaz bat etorriz.

c) Irakaskuntza eta ikerketaren aurrerabidea koordinatu eta Sailari loturiko AZParen lana ordenatzea.

d) Sailkideen eskariak eta iradokizunak jaso eta bideratzea.

e) Sailaren ihardueren urteroko Memoria prestatzea.

f) Kontseiluak onarturiko akordioak betereaztea.

g) Zientzi, teknika edo arte mailako ikerlanak burutzeko, Sailak egindako kontratuak sinatzea.

h) Hirugarren zikloko ikasketak koordinatzea.

2. El Consejo del Departamento estará formado por el Director, Secretario, Coordinadores de las Secciones Departamentales, seis representantes de los profesores, un representante de los ayudantes, un representante de los alumnos del tercer ciclo, los representantes de los alumnos del primer y segundo ciclo y un representante del PAS.

3. Son funciones del Consejo:

a) Programar la docencia, la investigación y las tareas administrativas del Departamento.

b) Aprobar las propuestas de gastos y el estado de cuentas.

c) Informar y decidir, de acuerdo con los Estatutos de la Universidad y el Reglamento del Centro, sobre la contratación y promoción del personal adscrito.

d) Aprobar la Memoria anual del Departamento.

e) Autorizar la celebración de contratos para la realización de trabajos científicos, técnicos o artísticos.

f) Elegir a su Director.

g) Informar con carácter previo sobre la concesión de *uenia docendi*.

h) Aquellas que le asignen estos Estatutos o las normas que los desarrollen.

*Artículo 94.*

1. El Director es elegido por el Consejo del Departamento y nombrado por el Rector.

2. La presentación de la candidatura irá avalada por el 20 por ciento de los miembros del Consejo. El candidato catedrático será proclamado si consigue la mayoría simple de los votos válidamente emitidos.

3. Si ningún candidato catedrático alcanzare dicha mayoría podrá ser elegido Director un profesor titular de acuerdo con el procedimiento anterior.

4. En el supuesto de inexistencia de Director de Departamento, el Consejo, de acuerdo con el Reglamento interno, adoptará las medidas oportunas que aseguren su funcionamiento.

5. El Reglamento establecerá la duración del mandato del Director y el procedimiento para su cese.

*Artículo 95.*

Corresponden al Director del Departamento las funciones siguientes:

a) Representar al Departamento ante los demás órganos de la Universidad.

b) Elaborar el orden del día, convocar y presidir las reuniones del Consejo del Departamento, de acuerdo con el Reglamento del Departamento.

c) Coordinar el desarrollo de la docencia y de la investigación y ordenar el trabajo del PAS adscrito al Departamento.

d) Recibir y canalizar las peticiones y sugerencias de los miembros del Departamento.

e) Elaborar la Memoria Anual de las actividades del Departamento.

f) Ejecutar los acuerdos adoptados por el Consejo.

g) Suscribir los contratos del Departamento para la celebración de trabajos de investigación científica, técnica o artística.

h) Coordinar las enseñanzas del tercer ciclo.

i) Errektoreak edo Fakultate-Eskoletako Dekano edo Zuzendariek ordezkaturiko betekizun guztiak edo Arautegiaz berari esleiturikoak.

*II ATALA. Unibertsitate-Institutuen Gobernu-Organoez*

*96. Artikulua*

Institutu bakoitzaren barne-Arautegiak beraren Zuzendaritza-Kontseiluaren osaera eta konpetentziak zehaztuko ditu, bertan berarekin zerikusia duten sektore guztien ordezkaritza bermatuz eta Zuzendaria hautatzeko arauak eta beraren konpetentziak finkatuz.

IV TITULUA
UNIBERTSITAL ELKARTEAZ

I KAPITULUA
IRAKASLEGOAREN ESTATUTUAZ

*I ATALA. Xedapen Orokorrak*

*97. Artikulua*

Unibertsitatearen Irakaslegoak ondoko osakideak ditu:

a) Unibertsitateko Katedradun eta Irakasle Titularrak.

b) Unibertsitate-Eskoletako Katedradun eta Irakasle Titularrak.

c) Irakasle Lagunak eta Bisitariak

d) Irakasle Emerituak.

e) Laguntzaileak.

*98. Artikulua*

Unibertsitateko Katedradun eta Irakasle Titularrek irakatsi eta ikertzeko ahalmen osoa izango dute. Unibertsitate-Eskoletako Katedradun eta Irakasle Titularrek, era berean irakasteko ahalmen osoa izango dute, eta Doktore tituluaren jabe direnean, ikertzeko ahalmen osoa ere bai.

*99. Artikulua*

Irakasle Lagunak gaitasun ezaguneko pertsona bereziтuen artetik kontratatzen direnak dira, beren lanbide-iharduera eskuarki Unibertsitateaz landa eramaten dutenak. Kontratuak denbora zati baterako izango dira, arduraldi osoa edo, ezosoa izanez.

Irakaslego era honen kontratazioa, funtsean, beren izaera berri, berezitasun, garapen-mailagatik,e.a., orain arte sorturiko jakintz arloetan oraindik behar bezala horniturik ez dauden gaien irakaskuntz edo eta ikerketa-premia bereziei erantzuteko egingo da, Unibertsitateak, Gizartearentzat duketen aparteko interesagatik, eskaini nahi dituenak.

*100. Artikulua*

Irakasle Bisitariak, beste Unibertsitate, edo irakats-ikerkuntz erakunde batzutako irakasleak dira, jakintz gaitasun ezagunekoak, Unibertsitateak, irakaskuntza edo ikerketa hobatzeko asmoz kontratatuak. Berauen kontratuak bi urtez iraungo du, beste bi urtetarako baina behin bakarrik, luzatu ahal izanez.

i) Cualesquiera otras que le deleguen el Rector o los Decanos o Directores de Facultades o Escuelas, o le sean asignadas reglamentariamente.

*SECCION II. De los órganos de Gobierno de los Institutos Universitarios.*

*Artículo 96.*

El Reglamento interno de cada Instituto determinará la composición y competencias de su Consejo de Dirección, en el que se garantizará la representación de todos los sectores relacionados con el mismo, y las normas para elección del Director y sus compentencias.

TITULO IV.
DE LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA

CAPITULO I.
DEL ESTATUTO DEL PROFESORADO

*SECCION I. Disposiciones Generales.*

*Artículo 97.*

El Profesorado de la Universidad está constituído por:

a) Catedráticos y Profesores Titulares de Universidad.

b) Catedráticos y Profesores Titulares de Escuelas Universitarias.

c) Profesores Asociados y Visitantes.

d) Profesores Eméritos.

e) Ayudantes.

*Artículo 98.*

Los Catedráticos y Profesores Titulares de Universidad tendrán plena capacidad docente e investigadora. Los Catedráticos y Profesores Titulares de Escuelas Universitarias tendrán, asimismo, plena capacidad docente y, cuando se hallen en posesión del título de Doctor, plena capacidad investigadora.

*Artículo 99.*

Los Profesores Asociados son aquellos que se contraten entre especialistas de reconocida competencia y que desarrollen normalmente su actividad profesional fuera de la Universidad. Los contratos serán temporales y con dedicación a tiempo completo o parcial.

La contratación de este profesorado servirá fundamentalmente para atender necesidades específicas de docencia y/o investigación en aquellas materias que por su novedad, especialización, desarrollo, etc., estén insuficientemente representadas en las áreas de conocimiento creadas y que la Universidad ofrezca por su interés social.

*Artículo 100.*

Los Profesores Visitantes son profesores de reconocida competencia de otras Universidades o instituciones docentes e investigadoras contratados por la Universidad, para la mejora de la enseñanza y de la investigación. Su contrato, tendrá una duración máxima de dos años, prorrogable por otros dos años una sola vez.

*101. Artikulua*

Irakasle Emerituak, behin beren ohizko akademi iharduera amaituta, beren meritu nabariengatik Unibertsitateak haintzat hartzen dituenak dira.

*102. Artikulua*

Laguntzaileak doktorego-ikastaroak bururturik dituzten goi mailako tituludunak dira, horrez gainera, gutxienez bi urtetako ikertze-iharduera frogatu behar izanez. Beren zientzi hezkuntza osatzeko, Sailetan sarturik egongo dira, eta era mugatuaz irakaskuntz lanetan ari daitezke. Beren arduraldia denbora osorako izango da.

Unibertsitate-Eskoletan, Lizentziatuak eta Goi mailako Ingeniari eta Arkitektoak ere laguntzailetzat kontratatu ahal izango dira, eta, LRU/UEL.aren 35.artikuluaren lehen zatiko jakintz arloei dagokienez, bai eta Diplomatuak, Arkitekto Tekniko edo eta Ingeniari Teknikoak ere.

*103. Artikulua*

Esperimentuzko Fakultateetan, Goi Eskola Tekniko eta Unibertsitate-Eskola Teknikoetan, Lantegi- eta Laborategi-maisuek, Sailaren Titularraren zuzendaritzapean, bertako irakaslegoa osatzen dute, Lantegi-Laborategietako ikastaldien aurrerabide teoriko eta praktikoaren betekizuna izanez, horretarako jarritako materialaren ardura eta mantentzea beren gain harturik.

Gobernu-Batzarreak finka ditzakeen baldintzekin, Unibertsitateak, modu iraunkorraz, 1. eta 2. zikloko graduatuen eta 2. mailako lanbide-Heziketakoen artetik kontratatu ahal izango ditu.

*104. Artikulua*

Unibertsitateko irakasleen eskubide-eginbeharrak, Legeak onartzen dituen gainerakoei horregatik kalte egiteke, ondokoak dira:

a) Irakaskuntzan ihardutea eta ikasleak ebaluatzea.

b) Ikerkuntzan ihardutea.

c) Beren kargu eta komisioetan aritzea, horretarako izendatuak diratekeenean.

d) Unibertsitatearen gobernu-organoetan eskuhartzea horretarako hautatuak diratekeenean.

*105. Artikulua*

Unibertsitateko irakasleek, Legeak onarturiko beste batzuri horregatik kalte egiteke, ondoko eskubideak dituzte:

a) Zientzi mailako ideiak eta erizpenak adierazteko eskubidea.

b) Etengabeko hezkuntzarako eskubidea, beren irakasts-ikerkuntz ahalmenaren atergabeko hobakuntza bermatzea helburu.

c) Unibertsitatearen hornidurak, eraikuntzak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, Unibertsitatearen arauek horretaz erabaki dezaketenaren bidetik.

d) Elkartzeko, sindikatzeko, taldeka negoziatzeko eta grebarako eskubideak, Unibertsitate eremuaren barruan.

e) Askatasunez adierazpenak egiteko eta biltzeko eskubidea.

*Artículo 101.*

Son Profesores Eméritos los que al concluir su actividad académica ordinaria hayan sido reconocidos como tales por la Universidad en función de sus méritos relevantes.

*Artículo 102.*

Los Ayudantes son titulados superiores que han finalizado los cursos de doctorado y pueden acreditar, además, un mínimo de dos años de actividad investigadora. Están integrados en los Departamentos, para completar su formación científica, y pueden colaborar en la tarea docente de manera limitada. Su dedicación será a tiempo completo.

En las Escuelas Universitarias podrán ser contratados como ayudantes Licenciados, Ingenieros y Arquitectos Superiores y, en el caso de las áreas de conocimiento del apartado uno del artículo 35 de la L.R.U., Diplomados, Arquitectos Técnicos y/o Ingenieros Técnicos.

*Artículo 103.*

En las Facultades Experimentales, Escuelas Técnicas Superiores y Escuelas Universitarias Técnicas los Maestros de Taller y Laboratorio forman el personal docente que tiene como función el desarrollo teórico y práctico de las clases de taller o laboratorio, bajo la dirección del Titular del Departamento y el cuidado y mantenimiento del material asignado a este fin.

Podrán ser contratados con carácter permanente por la Universidad, en las condiciones que establezca la Junta de Gobierno entre graduados de 1.º y 2.º ciclo, graduados de Formación Profesional de 2.º grado.

*Artículo 104.*

Son derechos y deberes de los profesores de la Universidad, sin perjuicio de aquellos otros reconocidos por la Ley, los siguientes:

a) El ejercicio de la actividad docente y la evaluación de los alumnos.

b) La actividad investigadora.

c) El desempeño de los cargos y comisiones para los que fueren designados.

d) La participación en los órganos de gobierno de la Universidad para los que hubieren sido elegidos.

*Artículo 105.*

Son derechos de los profesores de la Universidad, sin perjuicio de los reconocidos por la Ley, los siguientes:

a) El derecho a la expresión de las ideas y convicciones científicas.

b) El derecho a la formación permanente, con la finalidad de garantizar la constante mejora de su capacidad docente e investigadora.

c) El derecho a utilizar el equipamiento, instalaciones y servicios universitarios, de acuerdo con lo que establezcan las normas de la Universidad.

d) Los derechos de asociación, sindicación, negociación colectiva y huelga, dentro del ámbito universitario.

e) Los derechos de libre expresión y reunión.

f) Beren iharduera neurtzeko ihardupideetan entzuna izateko eskubidea.

*106. Artikulua*

Unibertsitateko irakasleek, Legeak eta Estatutu hauek onarturikoez gainera, hurrengo eginbeharrak dituzte:

a) Estatutuok eta berauen garapen-arauak onetsi eta betetzea.

b) Unibertsitatearen xedeak eta aribidea hobatzen laguntzea.

c) Irakaskuntza, ikerketa eta administrazioan, unibertsitateak berei gomendaturiko eratzunkizun eta betekizunen gainean, zor zaien artaz, ardura izatea.

d) Berez zientzi jakintzak eguneratu eta pedagogi ahalmena hobatzea.

e) Irakaskuntz eta ikerketa-ihardueren berri, Unibertsitate-arauetan jarritakoaz bat etorriz, aldizka ematea.

*107. Artikulua*

Irakaslegoak bere heziera osatu eta Unibertsitatearen beste Sail eta Institutuen irakaskuntz eta ikertze-zereginetan eskuhar dezake. Hori dela eta, Sailek irakaskuntza antolatu eta, bere kasuan, unibertsitatearen irakaslegoa unibertsitatearen beste Ikastegietan sartu ahal izateko, ekonomi aurrikuspenak eratuko dituzte. Horretarako, Gobernu-Batzarreak Sailen ihardueak zuzentzeko arauak ezarriko ditu, eta premiazko baldintzak eta eskatubeharrak ere bai.

*108. Artikulua*

Gobernu-Batzarrearen proposamenaz, aurretik Sailaren Kontseiluak horrela eskaturik, Gizarte-Kontseiluak gizabanakoentzako ezohizko ordain-kontzeptuak jar ditzake, irakaskuntz edo ikerketa-premiak edo meritu nabariak kontutan izanda.

*II ATALA. Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeaz eta Irakaslegoa aukeratu eta kontratatzeaz.*

*109. Artikulua*

1. Unibertsitatearen Irakaslegorako Bstzordearen mahaiburua Errektorea edo beronen ordezko Errektorordea izango da, bera Gobernu-Batzarreak izendaturiko zortzi kidez osatua egonik. Unibertsitatearen Klaustroak izendapenok berretsi egin beharko ditu.

2. Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordea jakintz arlo ezberdinetako eta irakats-ikerkuntzan esperientzia handia duten irakasleez osatua egongo da, eta, izendapen-proposamena egitean unibertsitatearen Sail guztietan berorien *curricula* zabalkundez iragarriko dira.

3. Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeari ondoko betekizunak dagozkio:

a) Errektoreari, beraren Mahiburu eta Bokal titular zein ordezkoen izenak proposatzea, berauek Unibertsitateko Katedradunen, Unibertsitateko Irakasle Titularren, Unibertsitate-Eskoletako katedradunen eta Unibertsitate-Eskoletako Irakasle Titularretzako plazak hornitzeko Batzordeetan, Unibertsitatearen izenean eskuhar dezaten.

f) El derecho a ser oído en los procedimientos de evaluación de su actividad.

*Artículo 106.*

Son deberes de los profesores de la Universidad, además de los reconocidos por la Ley y los presentes Estatutos:

a) Aceptar y cumplir los Estatutos y sus normas de desarrollo.

b) Contribuir a la mejora de las finalidades y funcionamiento de la Universidad.

c) Atender con la diligencia debida a las responsabilidades y funciones docentes, investigadoras y administrativas encomendadas por la Universidad.

d) Actualizar los conocimientos científicos y perfeccionar la capacidad pedagógica.

e) Informar periódicamente de sus actividades docentes e investigadoras, de conformidad con lo establecido en la normativa universitaria.

*Artículo 107.*

El profesorado podrá completar su formación y participar en las tareas docentes e investigadoras de otros Departamentos e Institutos Universitarios. Con este fin los Departamentos organizarán la docencia y establecerán, en su caso, las previsiones económicas que permitan la incorporación del personal docente de la Universidad a otros centros universitarios. Para ello, la Junta de Gobierno dictará la normativa reguladora de las actuaciones de los Departamentos y de los requisitos y condiciones exigibles.

*Artículo 108.*

A propuesta de la Junta de Gobierno y previa solicitud del Consejo del Departamento, el Consejo Social podrá asignar conceptos retributivos individuales extraordinarios en atención a exigencias docentes e investigadoras o a méritos relevantes.

*SECCION II. De la Comisión de Profesorado de la Universidad y de la Selección y Contratación del Profesorado.*

*Artículo 109.*

1. La Comisión de Profesorado de la Universidad está presidida por el Rector o Vicerrector en quien delegue, y compuesta por ocho miembros designados por la Junta de Gobierno. El Claustro Universitario deberá ratificar los nombramientos.

2. La Comisión de Profesorado de la Universidad estará constituída por profesores de amplia experiencia docente e investigadora pertenecientes a diferentes áreas de conocimiento a cuyos *curricula* se dará publicidad en todos los Departamentos de la Universidad en el momento de efectuar la propuesta de nombramiento.

3. Corresponderán a la Comisión de Profesorado de la Universidad, las siguientes funciones:

a) Proponer al Rector los nombres del Presidente y del Vocal, tanto titulares como suplentes, que en nombre de la Universidad han de participar en las Comisiones para la provisión de plazas de Catedráticos de Universidad, Profesores Titulares de Universidad, Catedráticos de Escuelas Universitarias y Profesores Titulares de Escuelas Universitarias.

b) Sailek Irakasle Lagun eta Laguntzaileen premiei dagokienez, aurkezturiko memorietako proposamenak informatu eta erabakitzea.

c) Ebaluazio-Batzordeek, Irakasle Lagun eta Laguntzaileen kontratazioan erabakitakoez aurkez daitezkeen helegiteak ebaztea.

d) Sail batek azaldutako premien eta Sail berorrek proposaturiko Irakasle Bisitariak dakarren irakaskuntz edo eta ikerketa-projektuaren artean dagoen bateratasuna aztertu eta ebaztea.

4. Unibertsitatearen irakaslegorako Batzordekideei Errektoreak beren irakaskuntz eginbeharrak, zatiz, gutxitu ahal izango dizkie, honela, gomendatzen zaien betekizuna behar bezalako artaz egin dezaten.

5. Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordekideak lau urtetarako izendatuko dira, bi urterik behin erdiak aldatuz. Lehen aldaketa bi urteren buruan eta zozketaz egingo da.

*110. Artikulua*

1. Unibertsitateko irakasle-kidegoetarako plaza bat hutsik gelditzean, Gizarte-Kontseiluak, Sailaren Kontseiluaren eta Gobernu-Batzarrearen informeen arauera, plaza hori gutxitzea edo beraren izena edo kategoria aldatzea komeni den ala ez erabakiko du.

2. Gobernu-Batzarreak, Sailaren Kontseilu eta ikastegi ukituen eskari arrazoituaz, irakaskuntz edo iker ketapremiak tartean direlarik, plaza huts horren kidegoko irakasleen artean meritu-lehiaketarako deialdirik egin ahal izango du.

*111. Artikulua*

Plaza hutsak hornitzeko lehiaketa publikoen deialdian, plaza bakoitzaren irakaskuntza zereginen eta Sailaren ikerketa-lerro nagusien azalpen xehetua jarriko da, hau guztiau Sailaren proposamenaz eta irakaslego berriak bere eginkizuna beteko dueneko Irakastegiak entzun ondoren.

Nolanahi ere den, euskaraz irakasteko eta ikertzeko ahalmena meritutzat hartuko da. Euskararen erabilera normaltzeko organo arduradunek, bere kasuan, behar den aholkua eskainiko dute horretan.

*112. Artikulua*

Plaza hutsak Bitarteko Irakasleek bete ditzakete. Urtebetegarrenean plaza huts horien lehiaketa-deialdia egin beharko da.

*113. Artikulua*

1. Unibertsitateko eta unibertsitate-Eskoletako Katedradun eta Irakasle Titularren plazak hornitzeko, horretan ukituriko Sailak Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeari Mahaiburuaren eta Bokal baten izenak, berorien ordezkoenekin batera, jakin eraziko dizkio, LRU/UEL.ak finkaturiko Batzordeetan eskuhar dezaten.

2. Irakasleoi dagokie, aukeraturiko kandidatuaren zientzi eta pedagogi maila egokia izateaz gainera, plazarako eskatu diren ezaugarrien jabe ere ba ote den arduraz begiratzea.

3. Unibertsitatearen irakaslegorako Batzordeak, harturiko eskabidean oinarriturik, ukituriko Ikastegiaren informea entzunik eta egoki deritzen argibideak eskatu

b) Informar y resolver las propuestas que se contengan en las memorias presentadas por los Departamentos con relación a las necesidades de Profesores Asociados y Ayudantes.

c) Dictaminar los recursos que se puedan presentar respecto de las resoluciones adoptadas por las Comisiones de evaluación en la contratación de Profesores Asociados y Ayudantes.

d) Estudiar y dictaminar acerca de la adecuación existente entre las necesidades descritas por un Departamento y el proyecto docente y/o investigador aportado por el Profesor Visitante propuesto por el Departamento.

4. Los miembros de la Comisión de Profesorado de la Universidad podrán ser exonerados por el Rector de parte de sus obligaciones docentes para atender adecuadamente a la función encomendada.

5. Los miembros de la Comisión de Profesorado de la Universidad serán nombrados por un período de cuatro años y se renovarán por mitades cada dos años. La primera renovación se hará por sorteo a los dos años.

*Artículo 110.*

1. Vacante una plaza de los cuerpos de Profesores de Universidad, el Consejo Social decidirá, de acuerdo con los informes del Consejo de Departamento y de la Junta de Gobierno, si procede o no la minoración o el cambio de denominación o categoría de la plaza.

2. La Junta de Gobierno, a petición razonada del Consejo del Departamento y del Centro correspondiente y por necesidades docentes e investigadoras, podrá convocar concurso de méritos entre profesores del cuerpo a que corresponda la plaza vacante.

*Artículo 111.*

En la convocatoria de los concursos públicos para cubrir las plazas vacantes se incluirá una descripción detallada de las tareas docentes de la plzas y de las líneas generales de investigación del Departamento, a propuesta de éste y oídos los centros en los que el profesorado vaya a desarrollar su función.

En todo caso la capacidad docente e investigadora en euskara será considerada como mérito. Los órganos encargados de la normalización del uso del euskara prestarán, en su caso, el asesoramiento necesario.

*Artículo 112.*

Las plazas vacantes podrán ser desempeñadas por Profesores Interinos. En el plazo de un año estas plazas vacantes deberán ser convocadas a concurso.

*Artículo 113.*

1. Para la provisión de plazas de Catedráticos y Profesores Titulares de Universidad y de Escuelas Universitarias, el Departamento afectado comunicará a la Comisión de Profesorado de la Universidad los nombres del Presidente y un Vocal, así como de los suplentes, que han de formar parte de las Comisiones establecidas por la L.R.U.

2. Corresponde a estos profesores cuidar de que el candidato seleccionado posea, además del nivel científico y pedagógico adecuado, el perfil señalado para la plaza.

3. La C.P.U., basándose en la solicitud recibida, oído el informe del Centro afectado y recabados los datos que estime oportunos, elevará a la Junta de Gobierno la

ondoan, Gobernu-Batzarreari bere proposamena heleraziko dio dokumentazio guztiaz batera. Adierazi zaizkion izenekin bat ez baletor, Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzoedeak Sailari dokumentazioa atzera bidaliko dio, beronek izendapen berria egin dezan.

4. Gobernu-Batzarreak proposamena informatu eta ondoren Errektoreak izendapena egingo du.

*114. Artikulua*

Plazen lehiaketak epaitzen dituzten Batzordeen erabakien aurka beste Batzarre baten aurrean jo daiteke. Batzorde horren mahaiburua Errektorea izango da, jakintz arlo ezberdinetako eta irakats-ikerkuntz esperientzia handiko sei irakaslez osatua izanez; berauek Unibertsitatearen klaustroak, botazio sekretuz eta hiru bostenen gehiengoaz, hautatuko ditu lau urtetarako. Batzorde honen erdia bi urterik behin aldatuko da, lehen aldaketa zozketaz izango delarik.

*115. Artikulua*

1. Irakasle Lagunak katedradun edo Irakasle Titularen mailan kontratatu ahal izango dira, eta jakintz gaitasun ezaguneko profesionariei Doktore-titulurik eza salbuets dakieke.

2. Irakasle Lagunen kontratazioa ondoko ihardupidearekin bat egingo da:

a) Irakaslego-moeta honekin beren irakaskuntza edo ikertze-projektuak berriztatzeko interesa duten Sailek premien memoria bat prestatuko dute, horretan, Ikastegia entzunik, gomendatzen zaizkien irakaskuntz erantzunkizunak, arian diren edo programaturiko ikerketak eta bertako akademi pertsonala, batez ere, kontutan izanik, proposamen bat formulatuko da, berorretan Irakaslego Lagunaren premiak adieraziz, berorren kopurua, maila eta kontratuen iraunaldia ere ezarriz.

b) Unibertsitartearen irakaslegorako Batzarreak, beharrezko deritzen aholkuak eskatu ondoan, memoria eta premiak ebatziko ditu, proposamenaren behin betiko zabalera zehaztuz, bai eta horretarako deia egin den Sailaren kidea zein den ere.

c) Behar den baimena lortu eta gero, Sailak lehiaketan jarri nahi dituen plazen irakaskuntz eta ikerketa arloko ezaugarriak azalduko ditu, ukituriko ikastegiak entzun ondoren.

d) Lehiaketa erabakitzeko, Errektoreak izendaturiko Ebaluazio-Batzorde bat eratuko da, hiru irakasle eta ikasle batez osastua, Sailaren kontseiluak bere osakideen artetik aukeratuko duena; horiez gainera, halaber, antzeko irakasgai batetako irakasle bat, bertako Kontseiluak aukeratua, eta Unibertsitatearen irakaslegorako Batzordeak izendaturiko bertako kide bat, Batzordeburu izango dena, egongo dira.

Ebaluazio-Batzordeko irakasleek deialdiko plazaren kontratazio-kategoria bera edo goragoa izan beharko dute, akademi mailaren dagokionez.

e) Ebaluazio-Batzordeak, kandidatuen hezkuntza, lanbide-esperientzia eta irakaskuntz ahalmena arakatu eta kandidatuak plazarako duen egokitasuna aztertu ondoren, Errektoreari bera kontratatzeko proposamena egingo dio.

3. Atzerritar naziotasuneko Irakasle lagunak era iraunkorrez kontratatu ahal izango dira, aurretik unibertsitatearen informea jasorik.

oportuna propuesta acompañada de toda la documentación. En caso de disconformidad con los nombres comunicados, la C.P.U. devolverá la documentación al Departamento para que efectúe una nueva nominación.

4. La Junta de Gobierno informará la propuesta y el Rector efectuará el correspondiente nombramiento.

*Artículo 114.*

Las resoluciones de las Comisiones que juzguen los concursos de las plazas podrán ser reclamadas ante una Comisión presidida por el Rector y compuesta por seis profesores de diversas áreas de conocimiento y con amplia experiencia docente e investigadora, elegidos por el Claustro Universitario por un período de cuatro años, mediante una mayoría de tres quintos en votación secreta. La Comisión será renovable por mitad cada dos años y la primera renovación será por sorteo.

*Artículo 115.*

1. Podrán contratarse Profesores Asociados a nivel de Catedrático o de Profesor Titular, pudiendo dispensarse del título de Doctor a profesionales de reconocida competencia.

2. La contratación de Profesores Asociados se sujetará al procedimiento siguiente:

a) Los Departamentos interesados en innovar la docencia o sus proyectos de investigación con esta modalidad de profesorado, elaborarán una Memoria de necesidades en la que, teniendo en cuenta principalmente las responsabilidades docentes encomendadas, oído el Centro, y las investigaciones en curso o programadas, así como el personal académico existente, se formulará una propuesta en la que se consignen las necesidades de Profesorado Asociado, con indicación del número, cualificación y duración de los contratos.

b) La Comisión de Profesorado de la Universidad, recabando los asesoramientos que estime precisos, dictaminará la Memoria y necesidades determinando el alcance definitivo de la propuesta, así como el Departamento afín a la plaza convocada.

c) Una vez obtenida la autorización correspondiente, el Departamento procederá a describir el perfil académico e investigador de aquellas plazas que estime oportuno sacar a concurso, oídos los centros afectados.

d) Para la resolución del concurso se constituirá una Comisión evaluadora nombrada por el Rector y constituída por tres profesores y un alumno designados por el Consejo de Departamento de entre sus componentes; un profesor perteneciente a un Departamento de materia afín, elegido por un Consejo, y un miembro de la Comisión de Profesorado de la Universidad, designado por la misma, que presidirá la Comisión. Los profesores de la Comisión Evaluadora habrán de tener una cualificación académica igual o superior al de la categoría contractual de la plaza convocada.

e) La Comisión Evaluadora, analizada la formación, experiencia profesional y capacidad docente de los candidatos y considerada la adecuación del candidato a la plaza, formulará la propuesta de contratación correspondiente al Rector.

3. Podrán contratarse con carácter permanente Profesores Asociados de nacionalidad extranjera, previo informe del Consejo de Universidades.

*116. Artikulua*

Bitarteko plazak hornitzeko, aurreko artikuluaren ihardupidearen antzera aritu beharko da, Gobernu-Batzarreak akordioz erabakiriko arautegiaz.

*117. Artikulua*

1. Irakasle Bisitariak katedradun-mailatan kontratatuko dira.

2. Irakasle Bisitarien kontratazioa ondoko ihardupideaz egingo da.

a) Kontratazio horretan interesaturiko Sailek beren premien Memoria prestatuko dute, proposaturiko irakaslearen irakaskuntz eta ikertze-projektuaz lagundua.

b) Unibertsitatearen irakaslegorako Batzordeak Memoria eta projektuaren azterketa egingo du eta proposamenaren alde edo aurkako epaia emango.

Bi eskatubeharrekoak ontzat emango balira, Errektoreari kontratatzeko proposamena heleraziko litzaioke.

3. Irakasle Bisitarien kontratuak berriztatu ahal izango dira, Unibertsitatearen irakaslegorako Batzordeak hasierako irakaskunts eta ikertze-projektuaren aurrerabidea onetsita, Sailaren premiengatik horrela behar izanez gero.

*118. Artikulua*

Irakasle Lagun eta Bisitarien eskubide-eginbeharrak irakaskuntz kidegoetako irakasleei buruz, oro har, ezarririkoekin bat etorriko dira, horregatik beren kontratu berezietan aurrikusten diren klausulei kalterik egiteke.

*119. Artikulua*

1. Errektoreak, Gobernu-Batzarrearen proposamenaz, Saila entzunik eta Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordearen eta Unibertsitateen Kontseiluaren Akademi Batzordearen informeak aurretik izanez, Unibertsitateari gutxienez hamar urtetako zerbitzu nabariak eskainiak dizkioten irakasle funtzionari erretiratuak Irakasle Emeritu izendatu ahal izango ditu.

2. Irakasle Emeritu izendapenak bi urtez iraungo du, berau, Gobernu-Batzarreak, Sailaren informea aurretik izanik, espreski luza dezakeelarik.

3. Unibertsitatearekiko kontratu-harremanak amaitzean, Gobernu-Batzordeak irakasle hauei, bizi arteko eta ohorezko izaeraz, Unibertsitateko Irakasle Emeritu-titulua eskaini ahal izango die.

*120. Artikulua*

1. Laguntzaileen kontratazioa ondoko ihardupideaz bat etorriko da:

a) Sail interesatuek beren irakaskuntz eta ikerketa-premien Memoria prestatuko eta beharrezkotzat jo ditzaketen Laguntzaileen zerrenda justifikatu beharko dute.

b) Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeak, aurkezten zaizkion memoriak informatu eta Gobernu-Batzarreari Laguntzaile-plazak ipintzeko proposamena egingo dio, komenigarri baderitzo, horrela onar dezan.

c) Unibertsitateak urtero, Sailetan dauden plaza huts guztietarako deialdia egingo du, Unibertsitateen Kontseiluari, zabal dezan horren berri emanez.

*Artículo 116.*

La cobertura de las plazas interinas se efectuará por procedimiento análogo al del artículo procedente, según la normativa acordada por la Junta de Gobierno.

*Artículo 117.*

1. Los Profesores Visitantes serán contratados a nivel de Catedrático.

2. La contratación de Profesores Visitantes se sujetará al procedimiento siguiente:

a) Los Departamentos interesados en la contratación elaborarán una Memoria de necesidades, acompañada del proyecto de docencia e investigación aportado por el profesor propuesto.

b) La Comisión de Profesorado de la Universidad realizará el estudio de la Memoria y del proyecto y dictaminará positiva o negativamente la propuesta efectuada. En el caso de que se estimen favorablemente ambos extremos, se elevará al Rector la propuesta de contratación.

3. Los contratos de los Profesores Visitantes podrán ser renovados, en el supuesto de que la Comisión de Profesorado de la Universidad realice una estimación positiva del desarrollo del proyecto inicial docente e investigador, y las necesidades del Departamento así lo requieran.

*Artículo 118.*

Los derechos y las obligaciones de los Profesores Asociados y Visitantes se ajustarán a lo establecido con carácter general para los profesores de los cuerpos docentes, sin perjuicio de las cláusulas previstas en los respectivos contratos.

*Artículo 119.*

1. El Rector, a propuesta de la Junta de Gobierno, oído el Departamento y previo informe de la Comisión de Profesorado de la Universidad y de la Comisión Académica del Consejo de Universidades, podrá nombrar Profesores Eméritos a aquellos profesores funcionarios jubilados que hayan prestado servicios destacados a la Universidad al menos durante diez años.

2. El nombramiento del Profesor Emérito tendrá una duración de dos años, prorrogable expresamente por la Junta de Gobierno, previo informe del Departamento.

3. Al término de la relación contractual con la Universidad, la Junta de Gobierno podrá conceder a estos profesores el título de Profesor Emérito de la Universidad con carácter honorífico y vitalicio.

*Artículo 120.*

La contratación de los Ayudantes se sujetará al procedimiento siguiente:

a) Los Departamentos interesados elaborarán una Memoria de sus necesidades docentes e investigadoras y justificarán la plantilla de Ayudantes que consideren necesaria.

b) La Comisión de Profesorado de la Universidad informará las memorias presentadas y elevará para su aprobación a la Junta de Gobierno una propuesta de asignación de plazas de Ayudantes, si así lo estimare conveniente.

c) La Universidad procederá a convocar anualmente todas las plazas vacantes existentes en los Departamentos dando cuenta al Consejo de Universidades para su publicidad.

d) Ebaluazio-Batzordeak bost osakide izango ditu: Sail horrexetako bi irakasle eta ikasle bat, bertoko Kontseiluak izendaturik; Sail kide batetako irakasle bat, bertako Kontseiluak izendatua; eta Mahaiburua, Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeak bere osakideen artetik izendaturikoa. Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeak deialdiko plazaren Sail kidea erabakiko du.

e) Ebaluazioan kandidatuaren expedienteak kontutan izan beharko dira eta Fakultate eta Goi Eskola Teknikoetako Laguntzaileen kasuan, Hirugarren zikloan izandako etekinak ere bai, eta ageriko proba objektibo bat ere burutu beharko da. Ebaluazio-Batzordeak informe arrazonatu bat prestatu beharko du, kandidatuaren merituen balioak agertuz. Informe hori Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeari heleraziko zaio, beronek Errektoreari kontratatzeko proposamena egin diezaion.

2. Gobernu-Batzarreak ihardupidea artezteko arautegi orokorra, kontratatzeko baldintzak, hautaprobak eta Laguntzaileen erregimena ebatziko ditu.

*121. Artikulua*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak beste Unibertsitateekiko komenioak sinatuko ditu, berorien bitartez, legeak horrela agindurik, urtebetez beste Unibertsital ikastegietan egon beharra izango duten Laguntzaileen elkartrukea errazteko.

*III ATALA. Irakaslegoaren egoerez.*

*122. Artikulua*

Irakaskuntz kidegoetako irakasleek, ihardunezko zerbitzuan egoteko, beren legezko izendapenaren bidez, Unibertsitatean, dagokien kidegoaren zerrenda-plaza bete eta plaza horrexetako zerbitzuak eskaintzen aritu beharko dute.

*123. Artikulua*

Unibertsitatearen irakaslegoari ihardunezko zerbitzuen egoera-erregimena, utzialdi berezi eta borondatezkoarena, edo legislazioan aurrikusten den beste edozein ere aplika dakioke. Ihardunezko zerbitzurako birsartzea legislazio orokorrak eskatzen dituen muga, epe eta baldintzen pean egingo da.

*124. Artikulua*

Errektoreak, irakasle hori dagoeneko Saila entzunik, horregatik ukituriko Ikastegi-Batzarreareen edo Batzarreen informea aurretik izanez, zerbitzuen komisioetarako baimena eman dezake, horien bitartez beste Unibertsitate edo Ikastegi batzutan, Irakasle Bisitari gisa, irakaskuntz edo ikerketa-iharduerak aurrera eramateko.

Komisioa akademi urte beterako emango zaio, beste batez ere luzagarri izanik. Irakasleak eskubidea izango du bere plaza gorde dakion, eta bere zerbitzuak eskaintzen ditueneko erakundeak ordinduko dio lana.

*125. Artikulua*

1. Gobernu-Batzarreak irakasleen baimen eta lizentzi erregimena indarrean dagoen legislazioaren barruan ezarriko du. Bertan erregimen hori aplika dakien, beharrezko baldintzak arautuko dira, lizentzien iraupena eta aldizkakotasuna, eta onuradunen ordaintze-erregimena ere bai.

d) La Comisión de Evaluación estará integrada por cinco miembros: dos profesores y un alumno miembros del Departamento en cuestión y desigados por su Consejo; un miembro profesor de un Departamento afín y designado por su Consejo; y el Presidente, que será un miembro de la Comisión de Profesorado de la Universidad, designado por la misma. La Comisión de Profesorado de la Universidad determinará el Departamento afín a la plaza convocada.

e) En la evaluación habrán de tenerse en cuenta los expedientes de los candidatos y para los Ayudantes de Facultades y Escuelas Técnicas Superiores los rendimientos obtenidos en el Tercer ciclo, y habrá de realizarse una prueba objetiva y pública. La Comisión Evaluadora elaborará un informe razonado donde se valoren los méritos de los distintos candidatos. Dicho informe será elevado a la Comisión de Profesorado de la Universidad para que efectúe una propuesta de contratación al Rector.

2. La Junta de Gobierno dictará la normativa general reguladora del procedimiento, condiciones de contratación, pruebas de selección y régimen de los Ayudantes.

*Artículo 121.*

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea firmará convenios con otras Universidades para facilitar el intercambio de Ayudantes que se vean obligados a permanecer, por imperativo legal, un año en otros centros universitarios.

*SECCION III. De las situaciones del Profesorado.*

*Artículo 122.*

Los profesores de cuerpos docentes están en servicio activo cuando, en virtud de nombramiento legal, ocupen en la Universidad plaza de plantilla del cuerpo a que pertenecen y presten los servicios correspondientes a la plaza que ocupen.

*Artículo 123.*

Será aplicable al profesorado de la Universidad el régimen de situaciones de servicio activo, excedencia especial o voluntaria, o cualquier otra prevista en la legislación. El reingreso en el servicio activo se hará en los mismos términos, plazos y condiciones que los exigidos por la legislación general.

*Artículo 124.*

El Rector, oído el Departamento al que pertenezca el profesor, previo informe de la Junta del Centro o Centros afectados, podrá autorizar comisiones de servicio para desarrollar actividades docentes o investigadoras, como Profesores Visitantes en otras Universidades o Centros de Investigación.

La comisión será concedida por un año académico, prorrogable por otro más. El profesor tendrá derecho a la reserva de plaza y será remunerado por la institución en la que preste sus servicios.

*Artículo 125.*

1. La Junta de Gobierno establecerá el régimen de permisos y licencias de los profesores en el marco de la legislación vigente. En él se regularán las condiciones para que les sea aplicable dicho régimen, la duración y la periodicidad de las licencias y el régimen retributivo de los beneficiarios.

2. Gobernu-Batzarreak Gizarte-Kontseiluari Sabbat-Urtea pixkanaka ezarriz joateko proposamena egingo dio, aurrekontu-baliabideek hori uzten duten neurrian.

*126. Artikulua*

1. Irakasleek beren betekizunetan denbora oso edo ezosorako arduraldi-erregimenaz ihardungo dute. Irakaskuntz orduak zenbatzerakoan, teori eta praktika-klaseez gainera, mintegietako iharduerak, Unibertsitate-hedakuntzazkoak eta Unibertsitateak izenpeturiko komenioak betetzearren egindakoak ere kontutan hartuko dira.

2. Arduraldiaren neurketa urteroko epetan egin daiteke. Gobernu-Batzarreari dagokio iharduera ezberdinen zenbatekoa neurtu eta arautzea.

3. Arduraldi-erregimen hobetsia denbora osorakoa izango da. Unibertsitateak, zerbitzuaren premiek eta aurrekontu-baliabideek uzten dutenean, interesatuek eskaturiko arduraldi-erregimena emango du. Gobernu-Batzarreak Unibertsitatean irauteko denborazko betebeharrak jarri ahal izango dizkie arduraldi ezosoa aukeratzen duten irakasleei.

4. Denbora osorako arduraldia, nolanahi ere den, bateragarria izango da LRU/Unibertsitate-Erreformarako Legean aurrikusten diren zientzi, arte eta teknika mailako projektuen burutzapenaz.

*IV ATALA. Irakaslego-zerrendez.*

*127. Artikulua*

1. Unibertsitateak urtero, bere aurrekontuetan, bere irakaslego-kategoria guztien zerrenda-kostuak jarriko ditu.

2. Gobernu-Batzarreak, Sailen eskarien oinarrian, Gizarte-Kontseiluari zerrenda-proposamena aurkeztuko dio, bertan, bereziki xeheturik, irakaslego-plaza guztiak, Sailka duten banaketaz, azalduz.

3. Zerrenda prestatzerakoan, irakasle-ikasle artean irakaskuntza egokiro eramateko kopuru-erlazioari eutsiko zaio, eta irakaslego-kategorien artean ere beroni irakaskuntz lanbidea burutzen uzten dion proportzioa gordeko.

4. Zerrendak bi urterik behin berrikusiko dira.

*128. Artikulua*

Ikasketa eta Ikerkuntz planen premien arauera, eta aurrekontu-baliabideak kontutan izanik, Gobernu-Batzarreak, ukituriko Sailen Kontseilu eta Ikastegi-Batzarreen informea aurretik izanez, Gizarte-Kontseiluari zerrenda bestelakatzeko eskatu ahal izango dio, plazen gehitze, gutxitze edo izen-aldaketagatik.

*V ATALA. Irakaslegoaren kontrolaz*

*129. Artikulua*

1. Unibertsitateko irakasleen irakaskuntz eta ikerketa-lana bi urterik behin ebaluatuko da. Horretarako, beraien unibertsitate-iharduerez ondoko ikuspegiak aztertuko dira:

a) Duten pedagogi gaitasuna, ikasleei urtero egingo zaien inkestaren bidez, berau Gobernu-Batzarreak eta dagokien Sailaren eta Ikastegiaren Zuzendaritzaren informeez arautua izanez.

2. La Junta de Gobierno propondrá al Consejo Social la paulatina implantación del año sabático, siempre que lo permitan las disponibilidades presupuestarias.

*Artículo 126.*

1. Los profesores ejercerán sus funciones en régimen de dedicación a tiempo completo o parcial. En el cómputo de las horas docentes se tendrá en cuenta, además de las clases teóricas y prácticas, las actividades en seminarios, las de extensión universitaria y las desarrolladas en cumplimiento de convenios suscritos por la Universidad.

2. El cómputo de la dedicación podrá realizarse por períodos anuales. Corresponde a la Junta de Gobierno la regulación y cuantificación de las diversas actividades.

3. La dedicación a tiempo completo será el régimen preferente. La Universidad concederá el régimen de dedicación solicitado por los interesados, siempre que lo permitan las necesidades del servicio y las disponibilidades presupuestarias. La Junta de Gobierno podrá imponer requisitos temporales de permanencia en la Universidad a los efectos de que los profesores puedan acogerse al régimen de dedicación parcial.

4. La dedicación a tiempo completo será, en todo caso, compatible con la realización de los proyectos científicos, artísticos y técnicos previstos en la Ley de Reforma Universitaria.

*SECCION IV. De las plantillas del profesorado.*

*Artículo 127.*

1. La Universidad incluirá anualmente en sus presupuestos, los costos de la plantilla de todas las categorías de su profesorado.

2. La Junta de Gobierno, sobre la base de las demandas de los Departamentos, presentará al Consejo Social una propuesta de plantilla en la que se enunciarán debidamente clasificadas, todas las plazas de profesorado y su distribución por Departamentos.

3. En la elaboración de la plantilla se mantendrá la relación numérica entre profesor y alumno que permita el desarrollo adecuado de la docencia y se guardará una proporción entre las categorías de profesorado que posibilite a éste la realización de la carrera docente.

4. Las plantillas serán revisadas cada dos años.

*Artículo 128.*

En función de las necesidades de los planes de estudio y de la investigación, y de acuerdo con las disponibilidades presupuestarias, la Junta de Gobierno, previo informe de los Consejos de Departamento y de las Juntas de los Centros afectados, podrá solicitar del Consejo Social la modificación de la plantilla por ampliación, minoración o cambio de denominación de plazas.

*SECCION V. Del control del Profesorado.*

*Artículo 129.*

1. La tarea docente e investigadora de los profesores de la Universidad será evaluada bianualmente. Para ello, se analizarán los siguientes aspectos de su actividad universitaria:

a) Su aptitud pedagógica, mediante encuesta anual a los alumnos, que será regulada por Junta de Gobierno, e informes del Departamento y de la Dirección del Centro o Centros correspondientes.

b) Sailaren ikerketa-lerroetan duten lankidetza, urteroko Memorian ageri izango dena.

c) Aipaturiko Memorian sartzen ez diren argitarapenak eta gainerako zientzi lanak, pertsona adituek balioetsiko dituztenak.

d) Unibertsitateko bestelako ihardueretan izandako partaidetza.

e) Unibertsitatearekiko arduraldia, Gobernu-Batzarreak, irakaskuntz betebeharrak kontrolatzeko sistemen bitartez neurtuko dena.

Unibertsitate-Eskoletako Irakasle Titularrak b) eta c) zatietako balioespenez salbu geldi daitezke.

2. Ikastegiaren Arautegiak Irakaslegoaren Ebaluazio-Batzordearen osaera, beronen agintaldiaren iraupena, konpetentziak eta aribide-erregimena erabakiko ditu, eta hartara, gutxienez, bi ikasle sartuko dira. Arautegian horrela ezarri balitz, Ikastegikoak ez diren pertsonek ere eskuhar lezakete.

3. Batzordeak egindako ebaluazioaren ondorioa agerikoa izango da, eta ezezkoa balitz, Batzordeak, proposamen arrazonatuaz, hartzeko neurriak aurkeztuko lituzke.

*130. Artikulua*

Bi urterik behin, Irakasle guztiek, aurreko artikuluan esaten diren ikuspegiak bilduz, Memoria bana prestatuko dute. Memoria hau Sailaren Kontseiluak ikuskatu eta aztertuko du eta Unibertsitatearen Irakaslegorako Batzordeari bidaliko dio, beronek azken ebaluazioa egin diezaion.

Epaia agertu baino lehen, Batzordea, duen informazioa gehitzeko, gai ezberdinetako adituen aholkuez balia daiteke. Ebaluazioa ezezkoa balitz, Batzordeak, proposamen arrazonatuaz, hartu beharreko neurriak arukeztuko lituzke.

Ikasleei egindako inkesten ondorioak, gizabanakoen eta Sailaren memoriak eta berauen ebaluazioa, urtero, irakaslearen expedienteari erantsiko zaizkio eta oinarrizko dokumentutzat balio izango dute, berak irakaskuntz edo ikerketa-plazetarako lehiaketetan eskuhar dezanean.

II KAPITULUA.
IKASLEEN ESTATUTUAZ

*131. Artikulua*

Unibertsitateko ikasleak, bertako edozein ikastegietan lehen, bigarren edo hirugarren zikloan matrikulaturiko guztiak dira.

*132. Artikulua*

Unibertsitateko Ikasleek, legeek eskain diezazkieketenez gainera, ondoko eskubideak dituzte:

a) Matrikulatu diren irakasketak jasotzeko, hor lanbide eta zientzi hezkuntza eguneratu eta humanistikoa hartuz, erabateko heziera osoa lor dezaten.

b) Unibertsitatearen irakaskuntz eta ikerketarako langai materialak eta bertako eraikuntzak eta aretoak erabiltzeko, beroriez baliatzeko diren arauekin bat etorriz.

b) Su colaboración en las líneas de investigación del Departamento, que se reflejará en la Memoria anual del mismo.

c) Sus publicaciones y los demás trabajos científicos que no se incluyan en dicha Memoria, que podrán ser valorados por expertos.

d) Su participación en otras actividades universitarias.

e) Su dedicación a la Universidad, que se evaluará a través de los sistemas aprobados por la Junta de Gobierno para el control del cumplimiento de las obligaciones docentes.

Los Profesores Titulares de Escuelas Universitarias podrán quedar dispensados de la valoración de los apartados b) y c).

2. El Reglamento de Centro determinará la composición, duración del mandato, competencias y régimen de funcionamiento de la Comisión de Evaluación del Profesorado en la que se integrarán como mínimo dos alumnos. Podrán formar parte de ella personas ajenas al Centro, si así se dispone en el Reglamento.

3. El resultado de la evaluación de la Comisión será público y, si fuera negativo, ésta presentará, en propuesta razonada, las medidas que habrán de adoptarse.

*Artículo 130.*

Cada dos años todos los profesores elaborarán una Memoria que recogerá los aspectos señalados en el artículo anterior. Esta Memoria será examinada y visada por el Consejo de Departamento que la remitirá a la Comisión de Profesorado de la Universidad para su evaluación final.

A los efectos de emitir su juicio, la Comisión podrá ampliar la información y asesorarse de expertos en las distintas materias. Cuando la evaluación sea negativa, la Comisión presentará, en propuesta razonada, las medidas que deban adoptarse.

Los resultados de las encuestas de los alumnos, memorias personales y del Departamento y su evaluación se incorporarán anualmente al expediente del profesor y servirán como documento de base para su participación en concursos a plazas docentes o de investigación.

CAPITULO II.
DEL ESTATUTO DE LOS ESTUDIANTES

*Artículo 131*

Son estudiantes de la Universidad todos los matriculados en cualquiera de sus centros docentes en cursos de primero, segundo o tercer ciclo.

*Artículo 132*

Los estudiantes de la Universidad tendrán los derechos siguientes, sin perjuicio de cuantos otros les concedan las leyes:

a) A recibir las enseñanzas para las que se hayan matriculado, recibiendo una formación profesional, científica, actualizada y humanística que haga posible su formación integral.

b) A utilizar, de acuerdo con las normas reguladoras de su uso, los elementos materiales, docentes y de investigación y las instalaciones y los locales universitarios.

c) Beren ikasketen aukera eta garapenerako orientabideak hartzeko, horrexetarako arautuko diren zehazpenen bidez.

d) Unibertsitateak ezar ditzakeen baldintzen arauera, beka, sorosbide, beherapen eta gainerako laguntzez baliatzeko eskubidea.

e) Unibertsitatean antola eta egin daitezkeen kultur, arte, kirol eta erlijiozko iharduera guztietan askatasunez eskuhartzeko, nor bere zeletasun, hobespen edo sineskeren arauera.

f) Unibertsitatearen gobernu eta administrazioan eskuhartzeko, Estatutu hauetan ezarri diren bideen bitartez.

g) Adierazteko askatasuna, eta ikasleen elkargo eta sindikatuak Unibertsitatearen barruan eratu eta antola tzeko, berorrek hartarako laguntza eta erraztasun ego kiak eskainiz.

h) Ikasleek, Unibertsital Elkartearen gainerako kideen antzera, Unibertsitate-barrutian bilerak eta asanbladak egiteko eskubidea dute, horregatik ikastegietako irakaskuntz, ikerketa eta betekizun zereginei kalterik egiteke, Unibertsital helburu horretarako dituzketen eraikuntzarik egokienak erabili ahal izanez.

i) Ahozko eta idatzizko proben ebaluaziorako eskubidea, Ikastegiaren Arautegian ezarritako betebeharreko baldintzekin bat etorriz.

j) Kalifikazioak berrikusteko, ezar daitezkeen arauen bidez.

k) Unibertsitatean bereziki antola litezkeen ikerlan zehaztuetan eskuhartzeko.

l) Jasoriko irakaskuntzaren nolakotasunari buruz beren eritzia adierazi eta jakin erazteko, Ikastegi-Batzarreari zuzenduriko informearen bidez.

m) Examinei eta ebaluazio-probei Autonomi Elkarteko edozein hizkuntza ofizialez erantzuteko eskubidea.

n) Ikasle ezinduei, esandako examinak eta probak beren ahalmenekin bat datozen baldintzetan burutzeko erraztasuna eman dakien, ezintasun horiek behar bezala frogatuz gero.

o) Asegurantza Sozialean sarturiko aseguroa izateko, indarrean dagoen legislazioak jartzen duenaz bat etorriz, famili zoritxarretik, istripu edo eritasunetik babesturik egon daitezen.

*133. Artikulua*

Unibertsitateko Ikasleek ondoko eginbeharrak dituzte:

a) Beren unibertsitari-egoerari dagokion ikasketa eta ikerkuntz lana egitea.

b) Gainerako ikasleekin eta irakaslegoarekin lankidetasunean aritzea, horrela zerbitzuak hobatu eta Unibertsitatearen helburuak lortzeko.

c) Baliabideen, horniduraren eta eraikuntzen erabilera egokiaren erantzunkizuna beren gain hartzea.

*134. Artikulua*

1. Beren eskubide eta eginbeharrak zaindu eta bete daitezen, arlo guztietan beren eskuhartzea bultzatzeko eta Unibertsitatearen helburuen partaide izateko, ikasleek beren erakunde berezia antolatuko dute, bertan, gutxienez, ondoko ordezkatze-organo hauek jarriz, aipatzen diren betekizunekin batera:

c) A recibir orientación en la selección y desarrollo de los estudios en los términos que reglamentariamente se establezcan.

d) A disfrutar, de acuerdo con las condiciones que la Universidad establezca, las becas, subvenciones, bonificaciones y demás ayudas.

e) A participar libremente en cuantas actividades culturales, artísticas, deportivas y religiosas se desarrollen en la Universidad de acuerdo con sus aficiones, preferencias o creencias.

f) A participar en el gobierno y la administración de la Universidad a través de los cauces previstos en estos Estatutos.

g) A la libertad de expresión y a constituir y organizar asociaciones y sindicatos de alumnos en el seno de la Universidad, la cual les proporcionará el apoyo y las facilidades oportunas.

h) Los alumnos, al igual que el resto de la comunidad universitaria, tienen derecho a celebrar reuniones y asambleas dentro del recinto universitario sin detrimento de las tareas de docencia, investigación y funcionales de los centros, pudiendo disponer, para ello, de las instalaciones universitarias más adecuadas a este fin.

i) A la evaluación de las pruebas escritas y orales, de acuerdo con los requisitos establecidos en el Reglamento del Centro.

j) A la revisión de las calificaciones, de acuerdo con la normativa que se establezca.

k) A participar en las tareas de investigación de la Universidad que pudieran determinarse.

l) A manifestar y hacer conocer su opinión acerca de la calidad de la enseñanza recibida, mediante informes a la Junta de Centro.

m) A responder a los exámenes y las pruebas de evaluación en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

n) A que se facilite a los alumnos con deficiencias físicas, fehacientemente demostradas, la realización de dichas pruebas y exámenes en condiciones acordes con sus capacidades.

o) A un seguro integrado en el sistema de la Seguridad Social, que les proteja ante el infortunio familiar, accidente o enfermedad, de conformidad con lo que establezca la legislación vigente.

*Artículo 133*

Son deberes de los alumnos de la Universidad:

a) Realizar el trabajo de estudio y de investigación propio de su condición de universitarios.

b) Cooperar con los demás alumnos y con el profesorado en la mejora de los servicios y en la consecución de los fines de la Universidad.

c) Responsabilizarse de la correcta utilización de medios, equipos e instalaciones.

*Artículo 134*

1. Para velar por el cumplimiento de sus derechos y deberes, potenciar su participación en todos los ámbitos y contribuir a los fines de la Universidad, los estudiantes crearán su organización específica, donde se contemplará como mínimo los siguientes órganos representativos con las funciones que se indican:

a) Ikastegiko Ikasleen Kontseilua, bertako ikasleen gestio-organo beterazle gisa.

b) Unibertsitateko ikasleen Kontseilua, Unibertsitateko ikasleen gestio-organo beterazle gisa, ordezkarien Asanblandan harturiko akordioak betetzeaz eta Estatutu hauetan zehazturiko eskubide-eginbeharrak kunplitzeaz arduratuko dena. Errektoreak Kontseilu hau, ikasleei doazkien gaietan, entzungo du.

c) Ikasleen Ordezkarien Asanblada, ordezkatzeko organo gorena alegia, beroni ondokoak dagozkiolarik: bere Barne-Arautegia prestatu eta bere Mahaiburua, Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluarena ere izango dena, hautatzea, eta Unibertsitateko Ikasleen jokabidearen lerro orokorrak onartzea ere bai.

Barne-Arautegia onartzeko, lehen botazioan Ordezkarien Asanblada osatzen duten ikasleen gehiengo absolutua, edo bigarren botazioan gehiengo soila, lortu beharko da, eta ondoren Gobernu-Batzarreari helerazi-ko zaio. Barne-Arautegia aldatzeko, gehiengo berbera behar izango da.

d) Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluaren Mahaiburua, Unibertsitateko edozein aginte-mailaren aurrean ikasleen ordezkari gorena da, eta beroni dagokio Unibertsitateko Ordezkarien Asanbladaren eta Ikasleen Kontseiluaren akordioak beteraztea. Gobernu-Batzarrekoa eta Gizarte-Kontseilukidea izango da.

2. Gobernu-Batzarreak Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluari aretoak eta kreditua emango dizkio, horretarako, Kontseiluak, aurretik bere iharduera orokorraren plana eta aurrekontu-projektua aurkeztuz. Aurrekontu horretan Ikastegietako Ikasleen Kontseiluentzako laguntzak kontutan hartu beharko dira, bai eta unibertsital intereseko kultur eta zientzi talde eta elkargoentzakoak ere.

*135. Artikulua*

Gobernu-Batzarreak ikasle-elkargoen arautegi orokorra ezarriko du. Ikasle-elkargoak sortzeko proposamenak Gobernu-Batzarreari aurkeztuko zaizkio, beronek ezagutu eta onar ditzan.

III KAPITULUA.
ADMINISTRAZIO-ZERBITZUETAKO PERTSONALAZ

*I ATALA. Xedapen Orokorra.*

*136. Artikulua*

1. Administrazio-betekizuna eta irakaskuntza eta ikerketaren eustazpi-betekizunak garatzea Administrazio-Zerbitzuetako Pertsonalari dagokio.

2. AZParen osakideak ondokoak dira, Unibertsitatearen beraren pertsonal funtzionari, lan-zuzenbidezko erregimenaz kontrataturiko pertsonala eta, bestelako administrazio publikoetakoa izanik, indarrean dagoen legislazioaren arauera, bere zerbitzuak Unibertsitatean eskaintzen dituen gainerako pertsonala ere bai.

3. AZPa Unibertsitatearen autonomia arautzen duten legeez arteztuko da, bai eta dagokiekeen funtzionari-legislazioaz, lan-erregimenaz kontratatuek dituzketen legislazio eta talde-komenioez, Estatutu hauez eta berauek garatzen dituzten arauez ere.

a) El Consejo de Estudiantes de Centro como órgano ejecutivo de gestión de los estudiantes del centro.

b) El Consejo de Estudiantes de la Universidad, como órgano ejecutivo de gestión de los estudiantes de la Universidad, que vele por el cumplimiento de los acuerdos adoptados por la Asamblea de representantes y de los derechos y deberes definidos en estos Estatutos. Será oído por el Rector en aquellos temas que afecten a los estudiantes.

c) La Asamblea de Representantes de los estudiantes, como su órgano superior de representación al que corresponde la elaboración de su Reglamento interno, la elección de su Presidente, que lo será también del Consejo de Estudiantes de la Universidad, y la aprobación de las líneas generales de actuación de los estudiantes de la Universidad.

El Reglamento interno deberá ser aprobado por mayoría absoluta en primera votación, o simple en segunda, de los estudiantes que constituyen la Asamblea de Representantes y elevado a la Junta de Gobierno. Para su modificación se requerirá la misma mayoría.

d) El Presidente del Consejo de Estudiantes de la Universidad como máximo representante de los estudiantes ante cualquier instancia universitaria, a quien corresponde ejecutar los acuerdos de la Asamblea de representates y del Consejo de Estudiantes de la Universidad. Será miembro de la Junta de Gobierno y del Consejo Social.

2. La Junta de Gobierno asignará locales y un crédito al Consejo de Estudiantes de la Universidad, previa presentación por parte del Consejo de un plan de actuación global y de un proyecto de presupuesto. Este presupuesto tendrá en cuenta las subvenciones a los Consejos de Estudiantes de los Centros y a aquellos grupos o asociaciones culturales y científicas de interés universitario.

*Artículo 135*

La Junta de Gobierno establecerá la reglamentación general de las asociaciones estudiantiles. Las propuestas de creación de asociaciones de estudiantes serán presentadas ante la Junta de Gobierno para su reconocimiento.

CAPITULO III.
DEL PERSONAL DE ADMINISTRACION Y SERVICIOS

*SECCION I. Disposiciones Generales.*

*Artículo 136*

1. El desarrollo de la función administrativa y de las funciones de apoyo a la docencia y la investigación corresponde al Personal de Administración y Servicios.

2. El PAS estará constituido por el personal funcionario propio de la Universidad, por el personal contratado en régimen de personal de otras administraciones públicas que de acuerdo con la legislación vigente presten servicio en la misma.

3. El PAS se regirá por las leyes que regulen la autonomía universitaria, por la legislación de funcionarios que les sea de aplicación, por la legislación y los convenios colectivos correspondientes para los contratados en régimen laboral, por los presentes Estatutos y normas que los desarrollen.

4. Lan berezi eta zehaztuak burutzeko, Unibertsitateak, denbora zati baterako eta egitekoak mugatuz, behar duen pertsonala kontratatu ahal izango du.

*137. Artikulua*

Unibertsitatearen helburuak lortzeko eta beraren zerbitzuak Gizarteari eskaintzeko, profesionari-talde gaituak behar dira, beteko duten eginkizunetan berezituak. Horretarako, lan-taldeak maila aski egituratutan bilbatuko dira, betekizun-erizpideei begira, ondoko sektoreak barnebilduz: gestioa, administrazioa, berezituak, irakaskuntza eta ikerketaren urgazleak, mantentzea eta zerbitzu orokorrak.

*138. Artikulua*

1. Administrazioaz den bezainbatean, Unibertsitatea Zerbitzu, Atal eta Negozialekutan banaturik egongo da, bai Zerbitzu Orokorretan eta bai Campus eta Ikastegietan ere.

2. Unibertsitatearen administrazio-antolaketa, Gerentziaren proposamenaz, Gobernu-Batzordeak onarturiko arauez eratuko da, aurretik AZParen ordezkariak entzunik. Berori aplikatzeko, administrazio- eta zerbitzuguneen organigrama formulatu beharko da.

3. Unibertsitatearen administrazio-antolakuntza zuzenduko duten arauek gune bakoitzaren lokarri organiko eta betekizunezkoak mugatu beharko dituzte, bai eta beraren eginkizunak ere. Horren arauera, eginkizun horiek aurrera eramateko premiazkoak diren eskala edo eta taldeen zerrenda erabaki beharko da.

*139. Artikulua*

1. Pertsonal funtzionaria hurrengo eskala hauetako bati loturik egongo da:

A Taldea: Gestiorako Teknikariak eta Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Ahalmendunak.

B Taldea: Unibertsitate-gestiorakoak eta A.B.M.etako Laguntzaileak.

C Taldea: Administraziorako Laguntzaileak.

E Taldea: Menekoak.

2. Lanerako pertsonala indarrean dagoen komenio egokian ezarririko taldeetako bati lotuko zaio.

*140. Artikulua*

1. Unibertsitateak bere pertsonalaren erregistroa Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurrien Legeak bere 13. artikuluan xedatzen duenaren arauera antolatuko du.

2. Unibertsitatearen Pertsonalaren Erregistroan beraren zerbitzupeko pertsonal guztiaren izenak jarriko dira, eta beren administrazio-bizitza ukitzen duten egintza guztiak ere bertan idatzi beharko.

*141. Artikulua*

1. Ikastegien Dekano edo Zuzendarien manupean Administrazaile bat egongo da, hurrengo betekizunok izango dituelarik:

a) Ikastegiaren administrazio- eta ekonomi gestioa zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, Errektoregotik eta Gerentziatik emandako arauekin bat.

4. Para la ejecución de trabajos especiales y concretos la Universidad podrá contratar personal con carácter temporal o eventual.

*Artículo 137*

El cumplimiento de los fines de la Universidad y su prestación de servicios a la sociedad exigen unas plantillas profesionales y especializadas en la función que habrán de desarrollar. Para ello, las plantillas se articularán en niveles suficientemente estructurados, atendiendo a criterios de funcionalidad y abarcando los sectores de: gestión, administración, especialistas, auxiliares de la docencia y la investigación, mantenimiento y servicios generales.

*Artículo 138*

1. La Universidad está organizada administrativamente en Servicios, Secciones y Negociados, tanto en los Servicios Generales como en los de Campus y de Centros.

2. La organización administrativa universitaria se desarrollará mediante normas aprobadas por la Junta de Gobierno a propuesta de la Gerencia, oídos los representantes del PAS. Su aplicación supondrá la formulación del organigrama de las unidades administrativas y de servicio.

3. Las normas que regulen la organización administrativa de la Universidad deberán definir los vínculos orgánicos y funcionales de cada unidad, así como sus actividades. En función de dichas actividades deberá determinar la plantilla de las diferentes escalas y/o grupos que las desarrollen.

*Artículo 139*

1. El personal funcionario estará adscrito a una de las escalas siguientes:

Grupo A: Técnicos de Gestión y Facultativos de Archivos, Bibliotecas y Museos.

Grupo B: De gestión Universitaria y Ayudantes de A.B.M.

Grupo C: Administrativos.

Grupo D: Auxiliares Administrativos.

Grupo E: Subalternos.

2. El personal laboral se adscribirá a uno de los grupos establecidos en el Convenio vigente correspondiente.

*Artículo 140*

1. La Universidad organizará su registro de personal de acuerdo con lo establecido en el artículo 13 de la Ley de Medidas para la Reforma de la Función Pública.

2. En el Registro de Personal de la Universidad se inscribirá todo el personal al servicio de la misma y se anotarán preceptivamente todos los actos que afecten a su vida administrativa.

*Artículo 141*

1. Bajo la dependencia del Decano o Director de los Centros existirá un Administrador que desarrollará las funciones siguientes:

a) Dirigir, coordinar y supervisar la gestión administrativa y económica del Centro de acuerdo con las normas emanadas del Rectorado y de la Gerencia.

b) Ikastegiari loturiko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonal guztiaren burutza organikoa bere gain hartzea.

2. Administratzailearen izendapena egitea Gerenteari dagokio, Ikastegiaren Dekano edo Zuzendariaren informea jaso ondoren, eta hura Administrazio-Zerbitzuetako Pertsonalaren arteko bat izango da, C talderako eskatzen den akademi titulazioaren jabe izanik.

*142. Artikulua*

Legez Pertsonal arloan Unibertsitateari esleituriko konpetentziak Errektoreari dagozkio. Konpetentzia horiek, halere, Gerenteari ordezka dakizkioke.

*III ATALA. Unibertsitatearen AZParen Hautaketaz.*

*143. Artikulua*

Unibertsitateak, bere autonomi erregimenean finkaturikoaz, eta Konstituzioan biltzen diren berdintasun-, agerikotasun-, ahalmen eta meritu-oinarrien arauera, bere administrazio-zerbitzuetarako pertsonal berezia hautatuko du.

*144. Artikulua*

Bere pertsonal berezia, bai funtzionaria eta bai lanerakoa ere, kontratatzerakoan, Unibertsitateak lehiaketa, aurkaritza eta aurkaritza-lehiaketa sistimen artean aukera dezake.

*145. Artikulua*

Eskala ezberdinetan gerta daitezkeen plaza hutsetarako deialdiak, eskala horiexetako funtzionarien artean, eta lekuz aldatzeko barne-lehiaketaz egingo dira.

Hornitu gabeko plazek eta plaza berriek Unibertsitatearen enplegu-eskaintza osatuko dute. Berau, behin Aurrekontuak onartuz gero, Errektoreak Lehendakaritzaren Ministraritzari eta Euskal Herriko Autonomi Elkarteari bidaliko die, nork bere enplegu-eskaintzan sar dezan, Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurrien Legeak bere 18. artikuluan ezarririkoa betetzeko.

*146. Artikulua*

Unibertsitatearen enplegu-eskaintzan konprometaturiko plaza hutsetarako hautaproben deialdia Errektoreak egingo eta beronek Estatuaren Buletin Ofizialean eta Autonomi Elkartearenean argiratatzeko aginduko du. Deialdi horretan probak burutzeko egutegi zehatza jarriko da, berau, nolanahi ere den, urte bakoitzeko Urriaren 1a baino lehen amaitu beharrekoa izanik, horregatik, izan litezkeen hautatzeko hezkuntz ikastaroei kalterik egiteke.

*147. Artikulua*

Unibertsitatearen funtzionari-eskala berezien plaza hutsak hornitzeko deialdiaren oinarriak, Unibertsitateen Kontseiluak onarturiko Oinarri orokorretan erabakitakoaz bat etorriko dira, aurretik Pertsonalaren Batzorde Gorenak aldeko informea emanez, proba horiek Estatuaren Administrazioarenekin homologa daitezen, horrela, Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurrien Legeak bere 17. artikuluan aurrikusten duen funtzionari-mugikortasunari bide emateko.

**b) Asumir la jefatura orgánica de todo el Personal de Administración y Servicios adscrito al Centro.**

**2. El nombramiento de Administrador corresponde al Gerente, previo informe del Decano o Director del Centro, y deberá recaer en un miembro del Personal de Administración y Servicios en posesión de la titulación académica exigida para el Grupo C.**

***Artículo 142***

**Las competencias en materia de personal atribuidas legalmente a la Universidad corresponden al Rector. Dichas competencias podrán ser delegadas en el Gerente.**

***SECCION III. De la Selección del PAS de la Universidad.***

***Artículo 143***

**La universidad seleccionará, en base a su régimen de autonomía, y de acuerdo con los principios constitucionales de igualdad, publicidad, capacidad y méritos, su propio personal de administración y servicios.**

***Artículo 144***

**A los efectos de selección de su propio personal, funcionario o laboral, la Universidad podrá optar entre los sistemas de concurso, oposición y concurso-oposición.**

***Artículo 145***

**Las vacantes existentes en las diversas escalas serán convocadas a concurso interno de traslado entre funcionarios de las respectivas escalas.**

**Las plazas no cubiertas y las nuevas vacantes compondrán la oferta de empleo de la Universidad. Será remitida por el Rector, una vez aprobados los Presupuestos, al Ministerio de la Presidencia y a la Comunidad Autónoma del País Vasco para su integración en las respectivas ofertas de empleo, a los efectos de lo establecido en el artículo 18 de la Ley de Medidas para la Reforma de la Función Pública.**

***Artículo 146***

**La convocatoria de las pruebas selectivas de acceso a las plazas vacantes comprometidas en la oferta de empleo de la Universidad será realizada por el Rector, quien ordenará su publicación en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma. En dicha convocatoria se establecerá el calendario preciso de realización de las pruebas que, en todo caso, deberán concluir antes del 1 de Octubre de cada año, sin perjuicio de los cursos selectivos de formación que se establezcan.**

***Artículo 147***

**Las bases de la convocatoria para cubrir las vacantes de las escalas de funcionarios propias de la Universidad deberán acomodarse a los dispuesto en las Bases generales aprobadas por el Consejo de Universidades, previo informe favorable de la Comisión Superior de Personal con el fin de homologar las pruebas con las de la Administración del Estado, permitiendo así la movilidad de los funcionarios prevista en el artículo 17 de la Ley de Medidas para la Reforma de la Función Pública.**

*148. Artikulua*

Eskala bakoitzeko plaza hutsetarako deialdia, lehiaketaz edo aurkaritza-lehiaketaz, Unibertsitateari loturiko eta, eskatubeharrezko titulazioa izanik, eskala maila apalagoa duten funtzionarien artean egingo da, legeak une bakoitzean uzten duen prozentu goreneraino.

*149. Artikulua*

Hautaprobetarako deialdia Unibertsitateak egingo du eta Erre ktoreak izendaturiko epaimahaiak eritziko. Beronen mahaiburua Erréktorea edo berak ordezka dezakeen pertsona izango da, eta gainerako osakideak ondoko hauek izango dira, Gerentea, edo beronek ordezka dezakeena, Autonomi Elkarteak bere baitarik proposaturiko funtzionari bat, Unibertsitate eta Ikerkuntzarako Estatu-Idazkaritzaren ordezkari bat eta Administrazio Publikorako Estatu-Idazkaritzaren beste ordezkari bat, Unibertsitatearen AZParen ordezkari bi, horietako bat zozketaz eta bestea talde horren Ordezkarien Komiteak deialdiko plazari dagozkion titulazioa eta maila dutenen artetik aukeratua. Plazaren izaerak hola beharko balu, Epaimahaiari Unibertsitateko irakasle bat, Gobernu-Batzarreak horretarako izendatua, erantsiko zaio.

*IV ATALA. Administrazio-Zerbitzuetako Pertsonalaren eskubide eta eginbeharrez.*

*150. Artikulua*

Unibertsitatearen AZPak ondoko eskubideak izango ditu:

a) Unibertsitatearen gobernu-organoetan eskuhartzeko eskubidea.

b) Bertako eraikuntza eta zerbitzuak erabiltzeko.

c) Askatasunez elkartzeko, sindikatzeko, talde-negoziaketak egiteko eta grebarako eskubideak, legeak finkatzen dituen mugetan.

d) Beren lanbidean goratuz eta birziklatuz joateko eskubidea.

*151. Artikulua*

Unibertsitateak administrazio-zerbitzuetako pertsonalaren etengabeko hezkuntza bermatuko du, bere gaitasun teknikoa, gorabidea eta berezitasuna lor ditzan. Horretarako, Heziketa eta Hobakuntzarako Batzordea eratuko da, bertan, bai Gerentzia eta bai AZPa erdibanako ordezkaritzaz agertuz. Batzorde horrek urteroko ihardueren programaketa moldatuko du.

*152. Artikulua*

Unibertsitatearen AZParen eginbeharrak ondoko hauek dira:

a) Estatutuok, berauen Arautegiak eta garapenarauak betetzea.

b) Unibertsitateak eskaintzen duen Zerbitzu Publikoaren aribidea ongi joan dadin ahalegintzea.

c) Ondarea errespetatzea.

d) Hautatuak izan direneko karguek aldean dakarzkieten erantzunkizunak beren gain hartzea.

*153. Artikulua*

AZParen ebaluazioa eta kontrola Unibertsitatearen Gerentziak egingo du.

*Artículo 148*

Las vacantes de cada escala serán convocadas a concurso o concurso-oposición restringido entre funcionarios de escalas inferiores adscritas a la Universidad y que reúnan los requisitos de titulación exigidos, hasta el máximo porcentaje que en cada momento permita la Ley.

*Artículo 149*

Las pruebas de selección serán convocadas por la Universidad y juzgadas por un tribunal nombrado por el Rector. Será presidido por él mismo o persona en quien delegue y constituído por el Gerente, o persona en quien delegue, un funcionario de la Comunidad Autónoma a propuesta de la misma, un representante de la Secretaría de Estado de Universidades e Investigación y otro de la Secretaría de Estado para la Administración Pública, dos miembros del PAS de la Universidad, uno de los cuales será escogido por sorteo y el otro designado por el Comité de Representantes de dicho colectivo entre aquellos que posean la titulación y nivel adecuados a la plaza convocada. Si la naturaleza de la plaza lo exigiera, se incorporará al tribunal un profesor de la Universidad designado al efecto por la Junta de Gobierno.

*SECCION IV. De los derechos y deberes del Personal de Administración y Servicios.*

*Artículo 150*

El PAS de la Universidad tendrá los derechos siguientes:

a) A participar en los órganos de gobierno de la Universidad.

b) A utilizar sus instalaciones y servicios.

c) A la libre asociación, sindicación, negociación colectiva y huelga, en los términos que establezca la ley.

d) A su promoción profesional y reciclaje.

*Artículo 151*

La Universidad garantizará la formación permanente del personal de administración y servicios que permita su adecuada capacitación técnica, su promoción y especialización. Para ello se constituirá una Comisión de Formación y Perfeccionamiento en la que estén representados en forma paritaria la Gerencia y el PAS. Dicha Comisión establecerá la programación anual de actividades.

*Artículo 152*

Serán deberes del PAS de la Universidad los siguientes:

a) Cumplir estos Estatutos, Reglamentos y Normas de desarrollo.

b) Contribuir al buen funcionamiento del Servicio Público prestado por la Universidad.

c) Respetar el patrimonio.

d) Asumir las responsabilidades que comporten los cargos para los que fueren elegidos.

*Artículo 153*

La evaluación y control de la labor del PAS, será efectuada por la Gerencia de la Universidad.

## IV KAPITULUA. DIZIPLINA-ERREGIMENAZ

*154. Artikulua*

1. Unibertsitatearen Diziplina-Batzordea eratuko da, ondoko betekizunokin:

a) Akademi diziplina gorde dadin bermatzea.

b) Unibertsitatearen osakideen aurkako diziplina-expedienteak eratzeko zereginetan laguntza ematea.

c) Diziplina-neurriak proposatu eta hartzea.

d) Beraren erabakien kontra aurkez daitezkeen kexa-galdapenak eta helegiteak goragokoengana bideratzea.

e) Legeak edo Unibertsitatearen barne-arauek bere gomendioan uzten dituen gainerako guztiak.

2. Bere helburuak betetzeko, Diziplina-Batzordeak, erreserbatuki, beharrezko deritzen argibideak eska ditzake. Beraren erabakiak, Estatutuotan jarririkoaren arauera, atzera joak izan daitezkeenak, agerikoak izango dira eta akademi agintari eskudunari heleraziko zaizkio, behar diren neurriak har ditzan.

*155. Artikulua*

1. Unibertsitatearen Diziplina-Batzordea hiru urtetarako aukeratuko da eta ondoko osakideak izango ditu:

a) Errektorea, edo beronek ordezkaturiko Errektorordea, mahaiburu izango dena.

b) Gizarte-Kontseiluaren ordezkari bi, Unibertsitatekoak ez diren bere kideen artetik izendatuak.

c) Ikastegien Dekano edo Zuzendarien ordezkari bat.

d) Sailen Zuzendarien ordezkari bat.

e) Irakasleen, ikasleen eta AZParen ordezkariak, berauen kopurua, beti ere Campus bakoitzaren ordezkaritza bermatuz, Unibertsitatearen, Klaustroak erabakitzekoa izanik.

2. Gobernu-Batzarreak Diziplina-Batzordekideak aukeratzeko ihardupidea ezarriko du, bai halaber berauek kendu edo ordezteko mekanismoak ere. Diziplina-Batzordekideak Errektoreak izendatuko ditu.

*156. Artikulua*

1. Diziplina-expedientea egiten hasteko ekimena dutenak ondoko hauek dira:

a) Errektorea eta Ikastegi, Sail eta Zerbitzuen Dekano-Zuzendariak.

b) Gerentea.

c) Akademi pertsonalaren edo administrazio-zerbitzuetako pertsonalaren kontrol eta Ebaluazio-Batzordeak.

2. Errektoreak, Diziplina-Batzordekideen artetik, diziplina-expedienteen Artezkaria eta Idazkaria izendatuko ditu.

## CAPITULO IV. DEL REGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 154*

1. Se constituirá una Comisión de Disciplina de la Universidad cuyas funciones serán las siguientes:

a) Garantizar la observancia de la disciplina académica.

b) Colaborar en las tareas de instrucción de los expedientes disciplinarios abiertos a miembros de la Universidad.

c) Proponer y adoptar medidas disciplinarias.

d) Tramitar, ante las instancias superiores, las reclamaciones y recursos, que contra sus propias resoluciones se presenten.

e) Aquellas otras que la Ley o la normativa interna de la Universidad le encomienden.

2. Para el cumplimiento de sus fines, la Comisión de Disciplina podrá recabar, con carácter reservado cuantos informes considere necesarios. Sus resoluciones, que podrán ser recurridas según lo establecido en los Estatutos, serán públicas y se elevarán a la autoridad académica competente para la adopción de las medidas pertinentes.

*Artículo 155*

1. La Comisión de Disciplina de la Universidad se elegirá para un período de tres años y estará formada por:

a) El Rector, o Vicerrector en quien delegue, que la preside.

b) Dos representantes del Consejo Social, designados de entre sus miembros no pertenecientes a la Universidad.

c) Un representante de los Decanos o Directores de Centro.

d) Un representante de los Directores de Departamento.

e) Representantes de profesores, alumnos y del PAS, en el número que establezca el Claustro Universitario y garantizando una representación de cada Campus.

2. La Junta de Gobierno establecerá el procedimiento de elección de los miembros de la Comisión de Disciplina, así como los mecanismos de revocación y sustitución. Los miembros de la Comisión de Disciplina son nombrados por el Rector.

*Artículo 156*

1. La iniciativa de apertura de un expediente disciplinario corresponde a:

a) El Rector y los Decanos o Directores de los centros docentes, Departamentos y Servicios.

b) El Gerente.

c) Las Comisiones de control y evaluación del personal académico y personal de administración y servicios.

2. El Rector nombrará de entre los miembros de la Comisión de Disciplina al Instructor y al Secretario de los expedientes disciplinarios.

*157. Artikulua*

1. Irakasle, ikasle eta administrazio-zerbitzuetako pertsonalaren diziplina-erregimenari buruzkoak Errektoreak erabakiko ditu.

2. Irakasleak eta administrazio-zerbitzuetako pertsonal funtzionaria beren zerbitzuetatik aldentzeko zehapenak, Unibertsitateen Kontseiluaren proposamenaz, organo eskudunak akordioz erabakiko du, funtzionari-legislazioaren arauera.

3. Ikasleen kasuan, beste Unibertsitate batetan ikasten segitzeko debekua, Errektoreak proposatuko du, eta Unibertsitateen Kontseiluak ontzat emango.

*158. Artikulua*

1. Unibertsital Elkartearen kideek Estatutuotan finkaturiko betebeharrei egindako hausteak hobentzat joko dira, bai eta Unibertsitate-usarioen aurkako portaerak ere.

